
SAGASTIBERRI
Urruzunotarrak
gehituz
2013

## irakaskuntza ertainetako

# URRUZUNOtarrak gehituz

## ekimeneko lanen bilduma
## 2013

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2013

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>.


| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2013ko ekaina |
| Ale-kopurua: | 1.700 |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila |
| Internet: | www.euskadi.net |
| Prestatzaileak | Maite Artabe, Iñaki Artola, Miren Jule Azurza,<br>Iñaki Iturain eta Santos Izagirre |
| Azala: | Txapo Creativos S.L. |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Fotokonposaketa: | Composiciones RALI, S.A. |
| Inprimaketa: | ONA Industria Gráfica, S.A. |
| ISBN: | 978-84-457-3302-8 |
| Lege-gordailua: | VI-531/2013 |

# AURKIBIDEA


**Hitzaurrea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 7

**Autobusean** . . . . . . . . . . . . . . . . . *Castillo Suarez* . . . . . . . . . . 11

**Prosa: A maila**

Elegunetako sugandilak . . . . . . . . . *Itziar Ugarte Irizar* . . . . . . . . . . . . 19
Errekaren mozorroak . . . . . . . . . . . *Ane Miren Arejita Abaitua* . . . . . . 27
Ameliaren lepokoa . . . . . . . . . . . . . *Garazi Mugarza Markina* . . . . . . 35
Ametsen bila . . . . . . . . . . . . . . . . . . *Sara Abaunza Urionabarrenetxea* 45
Oroitzapenen azken geltokia . . . . . . *Maialen Madariaga Intxaurraga* 53
Ilargiaren melodia . . . . . . . . . . . . . . *Leire Melgosa Ecenarro* . . . . . . . 63

**Prosa: B maila**

Motoredun latorrizko auto gorri txikia . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . *Larraitz Fagundez Osa* . . . . . . . . 75
Botetako sugandilak . . . . . . . . . . . . *Lurdes Ondaro Mallea* . . . . . . . . . 95
Beranduegi, kabroia . . . . . . . . . . . . . *Maddi Mendibil Artetxe* . . . . . . . . 101
Zeru goibeleko egunetan . . . . . . . . . *Maider Zabala Segurola* . . . . . . . 111
Kristalaren bestaldetik . . . . . . . . . . *Katalin Ibarzabal Galarza* . . . . . 121
Zure begietara begiratzean . . . . . . . *Ane Ugarteburu Perez* . . . . . . . . . 127

## Poesia: A maila


| | | |
|---|---|---|
| Arkatzetik errealitatera | *Gemma Urteaga Garmendia* | 135 |
| Lurretik altxatu gabe | *Mikele Landa Eiguren* | 143 |
| Zulo beltza | *Maialen Akizu Bidegain* | 151 |
| Kate-begiak | *Itziar Ugarte Irizar* | 157 |
| Itzalarekin solasa | *Ane Villagran Arrastoa* | 165 |
| Teloia jaisten denean | *Maialen Akizu Bidegain* | 171 |
| Panpin etxea | *Mikele Landa Eiguren* | 177 |


## Poesia: B maila


| | | |
|---|---|---|
| Zapi zurian, zirkulu ubela | *Mattin Aranburu Guridi* | 187 |
| Idazmena | *Irati Ricon Santoyo* | 193 |
| Poemaz blai | *Saioa Herreros Perea* | 199 |
| Kate motzean | *Iñigo Perez Mujika* | 207 |
| Zer gertatu da? | *Mattin Aranburu Guridi* | 213 |

**Urruzunotarrak 1986-2013** . . . . . . . . . . 219

# HITZAURREA

Urruzuno literatura-lehiaketa indarrean izan da hogeita zazpi urtez. Aurten, diru-egoerak hartaraturik antza, lehiaketa-bidea (berekin zuen sari multzo nagusiaz) ezabatu egin da. «Urruzunotarrak gehituz» izeneko ekimenak hartu du bere oinordekotza.

Liburu honen azken orrietan duzu, irakurle, urte hauetan guztietan Urruzunotar izan direnen zerrenda. Bostehundik gora dira dagoeneko horrelako «titulua» lortu dutenak. Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu dute irabazle izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetakoa lehiaketak urte hauetan egin duen ibilbidea. Han eta hemen azaltzen zaizkigu garai bateko kimu berri haiek gaurko kazetaritzan, gaurko literatura-izenetan. Kimu loratuak dira haiek, irakurle; kimu berriak, liburuan barrena dastatuko dituzunak.

Urtero bezala, berariaz goraipatu nahi dugu idazle gazte hauetako bakoitzaren atzean dagoen irakasle-trebatzailea. Irakasle fin horren lan isila dago gaztetxo hauetako bakoitzaren atzean. Berezko iaiotasuna ez da gehienetan nahikoa

izaten idazle berriak sortzeko. Landu, trebatu eta aberastu egin behar izaten da berezko hori.

Eta zuk, Urruzunoko parte-hartzaile ez irabazlea, ez etsi! Agian epaimahai honek ez du asmatu ikusten zure barnean daramazuna. Edo agian ez duzu oraingoan asmatu zure hori kanporatzen. Edo agian trebetasun apur baten kontua da. Guztiok dugu zer esana; guztion zer esanak du garrantzia; guztiok gara gai, esan nahi duguna esateko; guztiok gara gai, gainera, hori era duin, zuzen eta, zergatik ez, literarioan egiteko. Topikoa litzateke orain esatea «saiatu berriro», eta topiko erdiarekin nahikoa da: «saiatu» besterik ez.

Baina goazen aurtengo datuetara. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Literaturaz jantziak diren pertsona hauen kolaborazioa izan dugu aurtengo epaimahaian:

Castillo Suarez
Urtzi Urrutikoetxea
Leire Bilbao
Miren Agur Meabe
Katixa Agirre

Parte-hartzeari dagokionez, 2013. urte honetan 186 lan jaso dira: A mailan 85 prosan eta 33 poesian; B mailan, berriz, 58 prosan eta 10 poesian; bestalde, parte-hartzaileetako 136 neskak dira eta 50 mutilak.

Dakizuen bezala, ekimenak dituen 20 bikaintasun-aipamenak lau ataletan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailetan: bosna atal bakoitzean.

Aipamendunek irailean egingo den lau eguneko literatura-egonaldian hartuko dute parte.

Sagastiberri sailean epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratzen dira lanak eta liburua eskola guztietara eta parte-hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 2013a bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberako alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu aipamendunoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, eta epaimahaian kide izan ditugunoi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa idatzi duen Castillo Suarezi.

Liburuko idazleak poztuko dira, irakurle zaren horrek lan hauek maitekiro eta arretaz irakurtzen badituzu. Irakasle, erabil ezazu liburu hau irakur– eta idatz-zaletasuna zure ikasleen artean ugaltzeko. Irakurle, edonor zarela ere, irakur ezazu liburu hau gazte batzuen ilusioaren eta sormenaren ispilutzat hartuz. Euskaltzale, irakur ezazu itxaropenez euskararen fruitu apal eta duin hau.

IRAKUR NAZAZU, ERABIL NAZAZU, deiadarka datorkizu liburu hau.

**Euskara Zerbitzua**

# AUTOBUSEAN

Castillo Suarez

Poltsa handi batekin ibiltzen naiz beti. Handia giltzak, boligrafoak, agenda eta nezeser txiki bat sartu ahal izateko. Horretaz gain, beti daramatzat pare bat liburu eta libretatxo bat. Etxetik ateratzen naizen bakoitzean konprobatu egiten dut ea ez dudan ezer utzi kanpoan. Maiz bi edo hiru aldiz egiaztatzen dut ea baden libururen bat barruan. Izan ere, ez naiz libururik gabe ateratzen inoiz. Ez dakit zer egin, bestela, autobusean noanean. Ez dakit.

Batzuetan irakurri egiten dut. Gehienetan, berriz, irakurtzen ariko banintz bezala geratzen naiz orrialdeei begira; baina, egiazki, ez naiz irakurtzen ari. Inguruko elkarrizketak entzuten ari naiz. Hizketan ari den jendeak kontzentratu aurpegia ikusten didanean ez du pentsatzen bere elkarrizketak entzuten ari naizenik. Areago, ez du irudikatzen bazka direla niretako. Nire idatziak entzuten dudanarekin osatzen ditudala hein handi batean. Haiei buruz idatzi egiten dudala eta, aldi berean, neure buruaz ari naizela.

Batzuek beren bihotza ireki didate ez badakite ere. Beste batzuek, berriz, elkarrizketa arinak izaten dituzte eta berehala galtzen dut entzuteko interesa. Arretarik handiena pizten didatenak telefono bidezko elkarrizketak dira. Alde bakarra entzuten dudanez, jolasean aritzen naiz telefonoaz bestaldean

dagoena nolakoa izanen den irudikatuz: traidorea, liraina, lotsatia, argala, beltzarana, begi berdekoa… Badakit iragartzen zer galdetuko duen batak. Zer erantzungo besteak.

Maiz pentsatzen dut nirea ez den beste bizitza batzuk edukitzeko idazten dudala. Izan ere, normalean ez zait aparteko ezer gertatzen. Ez dut samin handiegirik sentitu izan inoiz, eta eduki ditudan pozak ere, gauza arruntengatik izan dira. Bizitza aspergarria dudala esan liteke. Monotonoa. Lanetik etxera era etxetik lanera. Hori bai, autobusera igotzen naizenean lanerako joan-etorrian, barreneko argi guztiak pizten zaizkit. Agerian geratzen naiz. Agerian geratzen dira inguruko guztiak.

Lan ordutegia malgua dugunez, ez dut autobusa beti ordu berean hartzen; horrela jende ezberdina entzuteko aukera daukat. Nolanahi ere, ohartu naiz ez zaidala komeni autobusa goizegi hartzea, jendea erdi lo joaten delako. Eta ez dute amets egiten ahots gora. Beranduegi hartzea ere ez da gauza ona, jendea nekatuegi doalako, eta hizketarako gogo gutxirekin. Ez, gogorik ez dute ezta telefonoz aritzeko ere. Eta nik hitzak ditut maite, ez, ordea, isiltasuna.

Maiz libreta txiki batean gauzak apuntatzen ditut ahaztuko zaizkidan beldurrez. Erosketen zerrenda idazten ari naizela ematen du, eta ez dio inork erreparatzen. Inor ez zaio begira geratzen ni bezalako neska bati: isila eta diskretua. Autobusean irakurtzen doan neska bat. Beroki beltza kentzen ez duena ezta autobus barruan ere. Ezer esaten ez duena. Dena entzuten ari dena.

Jende gutxi dago irakurtzen duena autobusean. Gehienek musika entzuten dute, edo ezer ez dute egiten erdi lo daudelako.

Horregatik barrena estutu zait neska altu bat ikusi dudanean. Liburua besapean jarri du autobuseko gidariari autobuseko bonoa erakustera zihoanean. Nire liburuetako bat da. Nire azkeneko liburua, zehazkiago. Begira geratu natzaio baina ez nau ezagutu. Ez naiz oso ezaguna, bistan da. Euskal idazle gehienak bezala, bestalde.

Bidaia osoa pasatu dut neskari begira. Nobela erdialdetik irekita dauka. Nire bihotz erdibitua ikusten ari da. Nire ezkutalekua aurkitu du. Biluzik nago bere aurrean. Ni naizela esateko gogoa daukat eta autobusetik irteterakoan zerbait esango diodala pentsatu dut. Maskara kendu. Nire aldi iluna erakutsi. Azaldu nahi diot idazketa behar dudala bizirik jarraitzeko. Batzuetan ez dudala nahikoa nire burua arakatzen eta ingurua behartzen dudala. Bera ere behatu izan dudala maiz. Badakidala berak ere badakiela zer den abandonatua izatea. Bere historia ere badela irakurtzen ari dena.

Besoa ukitu diot. Begiratu egin dit. Malkoak pilatuta ditu begi ertzean. «*Barkatu, beste norbaitekin nahasi zaitut*» esan diot nik orduan, koldarki. Une batez ispilu baten aurrean nengoela iruditu zait. Niri ere malkoak etorri zaizkit begietara, eta esku artean estutu dut libreta. Inguruari erreparatu gabe atera naiz autobusetik. Ezer entzuten ez dudala.

Neska ez da autobusetik atera autobusa hustu arte. Ez naiz bere zain geratu. Ez dut atzera begiratu. Badakit bere begiak bizkarrean ditudala. Ohitua nago bere begiez ikusten.

*Castillo Suarez*
Arbizun, 2013ko otsaila

# PROSA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Elegunetako sugandilak

Itziar Ugarte Irizar
Txantxiku ikastola
Oñati

# I.

Hamarkadak azken ekaina jantzita zeraman, askatasun aire batek etxetik atera zintuenean, Hamelingo txirulariak ehunka sagutxo haiek atzetik eraman zituen gisa bertsuan.

Berekoikeria barkatzeko, baina balantzaren alde bat pisutsuegi, lurra jotzera zihoala bizimodu errutinari eta jada gehiago desiragarri ez zitzaizun horretan. Bazindoazela, beraz, eta gainontzekoei ere gauza bera. Gainontzekoei ere, barkatzeko berekoikeria, baina balantza orekatzeko adio baten ordua iritsia zela, eta beste esatekorik gabe, ondorio okerrik ateratzen ez inor hasteko.

Jakin bazenekien ez nizula abandonurik, ez desengainurik aurpegiratuko. Are gehiago, zuregatik oso sentituko nintzela harro, nire baimen edo onarpenaren beharrik ez zenuen arren. Eta hala dela sinetsi nahi izanagatik ere, gezurra dirudi zer miserable sentitzen naizen, zu nirekin egotea desiratzen dudan aldiro, inoiz egin ez zen promesaren bat puskatu bazenu moduan.

*

Egunak zeramatzaten baserritarrek zerura begira. Larre berdeenak eta baratze aberatsenak, ihartzen hasiak, berde eta

aberats izateari utziko baitzioten euririk iristen ez bazen laster. Baina, biharamunean, aukeran zakarregi heldu zen euria. Eta aukeran zakarregi heldu zela diot, zure agurraren eskutik heldu baitzen.

Horregatik, inguruko mendiak txapela jantzita esnatzen diren elegunetan sentitzen naiz miserableen. Oroitzapenak horrenbeste izanik, apurka-apurka kontsumitzen nautela igartzen dut, ura larre eta baratzetako sustraietan apurka sartzen den bezala. Egiteko gauza hobeak bai, baina gogo barik, iruditzen zait, oinazearen barrenetan begira hastea, euria nondik datorren begiratzen jartzearen parekoa dela. Ikusten duzu euria erortzen, dena bere nahierara bustitzen, harrapatutakoa blai uzten. Gora begiratzean baina, ezin jakin nondik datorren tantetako bakoitza eta, orduan, oinazearen jatorria ulertzen saiatzea bezain etsigarri bihurtzen da.

Eta jada, etxeko ia edozein izkinetan lo egiten hasia naiz, gertuen suertatzen zaidan edozein manta, eskuoihal edo izarak gainean hartuta. Eta beti, begiak itxi eta lokartzen hastean, gogora etortzen zaizkit, etxerakotan, usu, tatuaien denda parean geratzen gineneko uneak. «Nik egitekotan hango hori edo beste hau», «ba nik beste hura edo hemengo letra txiki hauek» eta antzeko ausardi erakustaldiak eginez, soberan jakitun izanik, bietako inork ez zuela sekula bere larrua orratz hotz horren azpian ezarriko.

Kemen falta horren aitzakian, aski eta hobe, etxeratutakoan, oilo ipurdi soilez jantzitako azal biluzia, mingainaren punta zorrotz bustiarekin zulatzen uztea, elkarri margotzen genizkion tatuaiak izango bailiran; amaraunak zilborretik periferietarantz eta gau luzez, lepotik bizkarrera tarrasean habitat bila ziren sugandila erreboltariak. Gure intimitatearen

aldagai artistikoenaren zati, hori guztia erabat ridikulua irudituko zaidan goizak ere argituko duen arren.

*

Batek jakin zergatik lokartzen naizen hainbestetan irudi horiekin eta ez anitzez interesgarriago liratekeen beste hamaika oroitzapenetako batekin. Beharbada, tatuaia dendako gazte ile motzak, bakarrik paseatzen ikustean, begirada errukitsu horrekin begiratzen didanean sentitzen dudan amorruak eragina izango du. Sorrarazten diodan pena horrekin, barrura gonbidatuko banindu bezala. Berak jakin zertara.

Baina orain etxeratzean, sugandilaz bete zaigu etxea. Edo dagoneko zait, ez dakit, barkatu. Ihes egin omen zuten zure bizkarretik eta arrastaka dabiltza teilatutik erdi zintzilik, lapikoetan etzanik, izaretan lokarturik, lorontzietan, argazki erpinetan, bonbilletan kiskaltzen, zapatetatik burua ateratzen, hozkailuetatik mugurdi mermelada miazkatzen, hautsontzian zigarrokinak sudurretik sartzen, bozgorailuetan bibrazioz bibratzen.

Eta zaila zait onartzea, ez nautela ezertarako behar.

## II.

Norberaren jaioterria bera, bizi osoko kondena hertsia dela esan zuen behin batek. Hazten ikusi gaituzten plaza, tabernari, kale, bizilagun, baso, irakasle eta abarrek aurrerantzean aldean eraman beharreko kondena bat josten dutela, kasik konturatu gabe, bakoitzaren bizitzan, desegin ezin dena munduaren azken bazterrean lur hartuta ere.

Hark ulertuko luke zergatik hiri honetako lur edifikatu hau hartu nuen nik nire oinetakoen zola azpian, gogoan beste faltan ez ditudan horiekin inoiz berekoi jokatu banuen, orduan izan zen arren.

*

Ez dakit urte batzuk lehenago, gurasoak oraindik bizi ziren sasoian, kasu, alde egin nuen bezala, alde egin izan banu, nola hartuko zuten ingurukoek erabakia. Besteen asmoak akabatzeko inor ez diren esanen azpitik, sekula leporatzen ez den traizio sentimendu nahasi horrek hartuko luke nire oroitzapenaren tokia haiengan. Baina, errazagoa izan da zuri esatea, zugandik ikasi dudalako, bakardadeak ez duela zertan besteen errukia eta tristura bere baitan barnebildu. Maitatzea purpurinaz pintatzea bezain okerra dela, bakarrik egotearen desira hutsunearekin ezkontzea.

Gogoratzen dut gurasoen etxean bazela argazki bat, anai-arrebak ageri ginena, kaleko mimo-pailazo horietako baten aldamenean. Argazkiarengatik gogoratu dezakedanagatik, honek peto berde luze batzuk zeramatzan zabal belaunetatik sorbaldetaraino, aurpegia hamaika kolorez apaindua eta gorputza eta ikusmira, zeruko izar geldi baten distira pausatuaz tinko. Parez pare, aspaldi herdoildutako lata zapal bat lurrean, zuriz margotuta. Gurasoen aginduetara, txanpon pare bat latan sartu eta hagin faltan irribarre inozenteenarekin, argazki kamerari keinu eginda, pausatu zen irudia etxeko sarreran, latan utzitako txanpon gutxi haien truke. Kuriosoa baita guraso guztiek bidaltzen dituztela haurrak dirua botatzera, baina eurak ez direla sekula inguratzen lata, txapel eta gitarra-kaxetara.

Besteak beste, hori ondorioztatu baitut nik bederen, azken hilabeteetan. Nork esango baitzidan, argazki horretan, gure

mutur gazte zikinekin, garrantzia kendu nahi izan genion artista kaletar haren nolabaiteko bizilagun bihurtuko ninduela bizitzak. Larruzko txaketa latz handi honen barruan, bururik gabeko gizaki izoztuarena egiten hartuko nuela arnas. Noizbait, arrain ontzi bat izango zen beirazko biribil honen gainean, umeek fikzio burugabetu antzeztu honen misterio hau guztiz sinetsiko ez balute bezala, tranparen bila burua alde batera okertuta eta bekokia erabat zimurtuta aurrean jartzen zaizkidanean, hauei botoi artetik begiratzen igarotzen baitira nire orduak. Beste norbait aurretik deiadarka hasten zaien arte, mugitzeko eta amaitzeko behingoz bokata, berandu dabiltzala, beste behin ere.

Baina, nik eginbeharren zerrenda luzeak zekarren presa eta arduren monotonia honantz ekarri ninduen trenetik jaistean erantzi nituen.

*

Euria leun ari den arratsetan negar egiteko aprobetxatzen dut. Ikusiko baninduzu, parkingetara bakarrik negar egitera joateko, Ford zaharra eta Joe Henryren diskoak osten nizkizunean bezala, malkoak morfina direla esango zenidake. Begirada zurrun, geldi pausatu eta negar tantei euri tantekin batera ihes egiten uzten diet, seme-alabei tira eta tira eginez aterkipean mugitzen den inork igarri ez dezan elegun hauetarako gordetzen ditudala sendagarri ditudan saminaren ihesaldi busti hauek.

Hartzen ditugun erabakiei segituz, denok igotzen baikara egunero kristal fineko arrain ontzi batera, tarteka malkoz bete eta oreka berreskuratzeko. Batzuetan mugimenduak, moldakaitz eta trakets, ezjakintasun hutsetik sortu eta azer-

tatuak suertatzen dira. Beste hainbestetan, ordea, jauziren batean kristala arrakalatuko dugu eta puska zorrotzak orkatiletaraino sartuko dira. Erabaki okerrek, azaleko zauri edota zauri sakonetatik odol ibai bustiak isuri ditzaten, mina lehenbailehen sendatzen hasteko.

*

Norberaren jaiolekua kondena bihurtzen dela zioen hari kontra egingo lioke, iraultza guztien arrazoia maitasuna zela zioen beste hark. Bada egun, kontra egiten behin jarrita, maitasuna baino, iraultza guztien arrazoia askatasuna dela erantzungo nuke nik. *Liberté*, hemen esango lukete.

Hamarkadak azken ekaina jantzita baitzeraman, askatasun aire batek sugandila bilakatu eta sagutxo txistu zale haien pare, buztana horren bizkor, horren geldi gor, etxetik atera eta arrain ontzi baten gainera igo ninduenean.

# Errekaren mozorroak

Ane Miren Arejita Abaitua
Gernika institutua
Gernika-Lumo

Bizitzan zutabe izan den Bilboko etxeko leihotik, ene begien aurretik, errekak urteetan eta urtaroetan zehar egin dituen desfileei erreparatzen diet.

**Soineko berdea,** egun eguzkitsuetarako aukeratutako jantzia. Urak *Arenalean* agertzen diren zuhaitzen orrien kolorea hartzen du.

Sargori zegoen igande goiz horretan, *Arenal*eko kioskoan udaleko bandak egiten zuen asteroko kontzertua entzuten nengoela, ezkien itzalaren babespean… aurkitu zintudan. Zure soineko berdea, begi berdeak, ile-mototsa estu lotzen zuen lazo berdea… 1958ko uda. Ikusi eta berehala izan nuen zurekin ezkonduko nintzelako ziurtasuna. Egun hori heldu baino lehen beste bost uda zoragarri eman genituen elkarrekin. Lehenengo musuak, ferekak, maitasun debekatuaren gozamena. Trena hartu inguruko herrietara joateko, udako berbenetan tangoak eta pasodobleak estu-estu dantzatzeko irrikan; lehenengo soldata, errekari begira zegoen etxea erosi eta maitasunez apaindu; gure inizialak hari finez bordatuta zeramatzaten kotoizko izarak eta mahai-oihalak; lehenengo kotxea, bidaiak, itsaso eta mendiaren berdea, kresala eta garoa. Baina beti bata bestearen eskuari gogor helduta.

Ezkontza-eguna iritsi zen eta gero ezkongaietan amesturiko lehenengo semea, alaba, beste seme bat. Algara alaian igarotako orduak, lo egin barik pasatutako gauak… Jolasen, negarren eta barreen aroa, maitasunez prestaturiko ahiak eta maitasunez irakurritako ipuinak, lehenengo eskola-egunak, ama eta aldi berean emaztea denaren goxotasuna. Baina beti berdez tindaturiko zoriona.

Erreka, umeen soinu alaiez estaltzen da. Abuztuan, Mari Jaia dirdiratsua, harro zutitzen den Arriagan itsatsita azaltzen da. Suziriak, txosnak eta kotoi goxoaren usaina.

Erreka berdea, noiz arte?

**Soineko iluna,** urritik aurrera erakusten duena. Hil berria den udako su biziaren errautsak leunki barreiatzen dira errekari berun-koloreko kapela jantziz.

Bost urte baino ez eta Mikelen gaixotasuna etorri zen. Zenbat mediku, zenbat botika! Beste seme-alabak, baztertuta askotan, aitita-amamarekin utzi behar, gu azkeneko itxaropenari heldu nahian, Madrileko ospitalerantz abiatzen ginen bitartean. Ahalegin handiak eginez, Mikelen lagunen futbol partidak ikustera joaten ginen, alaitasuna umeen begietan islatuta eta iluntasuna semearen begiradan, bakardade gorriaren seinale.

Urte latzak. Lantegiak porrot... Langabezian egoteagatik kobratzen nuen diru apurraz ezin familia mantendu. Gosea ez dakit, baina bai behin eta berriro erabilitako oliotan frijitutako patatekin oheratu behar edo, kokoz beteriko dilistak edo arroza atseginez jan behar besteen aurrean, umeek protesta egin ez zezaten. Okela ametsetan baino ez.

Eta Mikelen gaixotasuna; eta emazteak lana egiteari utzi semearen gaixotasunak behartuta. Egun beltz haietan familiaren babesak eta laguntzak mantendu gintuzten zutik, bata bestearen eskuari gogor helduta.

Gogoratzen dut Mikelen hilobi iluna, hotza; gure bihotzak ere kolorge, gorritasun bizia galduta, gorrixka bihurtuta.

Errekaren neguko jantzi iluna, hotza. Tristura, gure bihotzen isla ziren hosto gorrixkak, bufandak, malkoak xurgatzeko zapiak…

Erreka iluna, aro jasanezina, noiz amaituko ote?

**Soineko marroia,** errekak egun euritsuetan gabardina modura janzten duena.

Bai gabardina lodia guk jantzi behar izan genuena Mikelen desagerpenaren ondorioz. Maleta marroia hartu genuen galdutako semearen oroitzapenak sartzeko eta hortik aurrera etorriko ziren bizipen berriak gordetzeko. Samintasunak etsipenari egin zion leku. Emaztea eta biok lanean hasi ginen, gogotsu, iraganeko mamuak uxatzeko, etxera noiz helduko zain umeen haurtzaroko denbora galdua errekuperatzeko asmoz.

Denboraren poderioz, malkoak lokatzez eginiko etsipen bihurtu ziren, umeak nerabe egin ziren eta nerabeak pertsona helduak, nahiz eta amarentzat eta biontzat beti umeak izaten jarraitu.

Ikasketak amaitu zituzten, mutil-laguna eta neska-laguna topatu eta seme-alabak, errekan eroritako orbelaren modura, itsasorantz abiatu ziren etorkizun urdinaren bila.

Bitartean, leihotik begiratzen genien *Arenal*eko ezkiei, errekari, geure buruari, gabardina lodia erantzi ezinik, maleta marroia ezin itxiz, oroitzapenez gainezka. Eta gu biok bata bestearen eskuari gogor helduta.

Euri-zaparradak, haize boladak, zuhaitzen hostoak airean, euri-tanten zalaparta kristalen kontra… Adaxkaz estaliriko erreka.

Jantzi marroia, ezin erantzi?

**Gabonetarako argitxoz beteta dir-dir egiten duen jantzia.** Errekak gabonetarako apainduriko pinuen isla ematen du.

Egunero egiten dut errekaren ertzeko paseoa makilaz lagunduta. Eta makilaz ere saiatzen naiz errekarentzako alegiazko soinekoak marrazten, album lodikotea lortu arte: umeen bataioaren eta lehen jaunartzearen soineko zuri dotorea; umeek txikitan janzten zituzten karamelu likatsuz zikindutako praka labur urdinak eta kuleroak ikustear uzten zituzten gona arrosak; seme-alabek ikasketak amaitzean lortu zituzten urre koloreko dominak; hondartzan, harea hori eta zipriztin zurien artean igarotako arrats gorriak… Kolore guztietako jantziak agertzen dira nire bizitzaren argazki-albuma eratuz. Orain, erreka, arroparik ederrena janzteko prest: gabonetakoa.

Gabonetako jaiak, Olentzerori Arriagan egiten zaion harrera, umeen gabon-kantak, 2009ko gabonak. Aurten, azkeneko urte guztietan bezala, familia guztia bildu dut gabon mahaian, nire bizitzaren zutabea izan den errekari begira, *Arenal*eko argiek keinu egiten diguten bitartean. Leihoetan Bilboko dendek banatu dituzten paperezko izarrak

itsatsi ditugu. Ilobei, izar bakoitzean, kide baten izena jartzea bururatu zaie. Bat, bi, hiru… Hamaikagarrena ipini ondoren, soberan gelditu den izarra eman didate. Emazteak eta biok, erabiliaren erabiliaz urratutako eta hamaika aldiz adabakiaz jositako mahai-oihalaren azpian, batak bestearen eskuari gogor helduta, elkarri begiratu diogu eta, gero, izar hori lekurik altuenean eta ikusgarrienean itsatsi dugu, besteentzat izen barik; guretzat tinta ikusezinaz idatzitako Mikel izen maiteaz.

Koloretako bolez apainduriko errekak jaietako soinekoa janzten du. Familiaren berotasuna, turroiaren goxotasuna; zuhaitzak, biluzik, argitxoz egindako tapakiez estali nahian.

Urte zahar eguna. Hurrengoan, erreka, jaietako soinekoa jantzita ikusteko aukera guztiok izango ote?

# Ameliaren lepokoa

Garazi Mugarza Markina
Fray Juan de Zumarraga institutua
Durango

Etxeko bainugelarantz hurbiltzen ari zen, gero eta hurbilago ikusten baitzuen komuna. Pijamaren prakak eta kuleroak jaitsi eta bertan eseri zen. Deseroso sentitzen zen. Beteta zuen sabelaldea, puztua izango balu bezala, eta lehertzear zegoen globo hori hustu nahian eseri zen tronuan. Presioa baretu ahala, gero eta bustiago sentitu zen, eta gaueko izaren epeltasun umela sentitu zuen unean, begiak ireki eta masailak lotsagorritu zitzaizkion. Bai, beste behin ere pixa egin zuen ohean. Lepokoa estutu zuen, larrialdietan egin ohi zuen bezala.

Berriz jaio zela etorri zitzaion une horretan burura, bere bizitzako lehen segundoak dastatzen ari zela. Beste haur guztiak bezala, bera ere bustita, epel eta negarrez jaio zela kontatu zioten. Amelia deitu zuten amek jaio eta berehala. Bai, amek. Zazpi ordu eman zituen amak medikuari garrasika eta madarikazioka. Bai, Ameliak bi ama ditu. Eta ez zekien zeinen sabelean egon zen jaio orduko.

Lotsatuta zegoen, bere buruak lotsarazi zuen. Zer pentsatuko lukete gainerakoek? Barre egingo zioten ziurrenik. Zer esango zion amari? Amak ez igartzea izaten zen bere helburu nagusia, eta ohea desegiteak ezer gutxirako balio izaten zion, atzera egiteko gauza ez zelako. Sarritan desegin zuen ohea

bere kasa, baina alferrikako lana zela ikusi zuen. Ile lehorgailuarekin ere makina bat aldiz ahalegindu zen, baina bere putz-hots zaratatsua salataria zen. Ez zuen beste aukerarik ama iratzartzea baino, eta pausu isilen gainean amaren albora iritsi zen Amelia.

– Etorri, ama.–Sorbaldan bultzaka esnatu zuen amatxo Ziortza.

– Amelia…–Esan zuen, erdi ametsetan, erdi esna. Ahots makala izaten zuen amak gauetan.

– Zer behar duzu, laztana? Segi lotara, goizaldeko laurak dira eta. –Esan zuen amatxo Idurrek erlojuari begirada nekatu eta alfer bat eskainiz. Pausu hotsak entzuteaz batera iratzartzen zen amatxo Idurre, lorik egiten ez zuela iruditzen zitzaion Ameliari.

– Etorri.

Ez zen ausartu amari ezer esatera, lotsa eta beldurra nahasi baitzituen pasabideko iluntasuna zeharkatu bitartean. Ama logelara ekarrarazi zuenean ostera, isilik jarraitzea erabaki eta hatz erakusleaz ohea seinalatzera mugatu zen. Amak aurpegi arraroa jarri zuen. «Bai, ama, oraindik pixa egiten dut ohean» pentsatu zuen. Aitzitik, eskuoihalarekin garbitu eta pijama aldatu bitartean izara garbi-garbiak jarri zizkion amak. Muxu goxo batekin agurtu zuen, eta Amelia ere berriz sartu zen ohean, loak hartu zuen arte.

* * *

Karameluzko hortzekin amets egiten zuen, eskarlata koloreko azukre gogorrean pentsatze hutsak lerdea zeriola

jartzen zuen. Ahoan bazuen lekua Ameliak, jada lehen bi hortzak erori baitzitzaizkion. Esnezko hortzek utzitako lekua karameluzkoekin bete nahi bazuen ere, ostegun eguerdi batean dentistak garestiegi ateratzen zirela esan zion. Dentistarenera gustura joateari utzi zion. Bertako usaina atsegin zuen, hortzak egoera onean nituela entzutea atsegin zuen, edo udazkenean beste bisita bat egin behar zuela, edo atzeko haginak goizegi atera zitzaizkiola, atsegin zuen hortzak egunean hiru aldiz eta hiru minutuz eskuilatu behar zituela gogoraraztea. Baina ametsarekin batera ilusioa ere zapuztu zion. Lepokoa estutu zuen.

Eta ordutik, hostoak erortzen hasten ziren garaian dentistarenera joateak jada pozten ez zuenez, gainerako gauzen udazkena bilatzeari ekin zion, denborak beti lagunduko ziolakoan (hostoen udazkena urre gorrizko distiren presentzia da. Eguzkiaren udazkena egunsentiko printza epeletan dago.). Udazkenak goibelak iruditzen zitzaizkion, ederrak hala ere. Dentistaren udazkena izango al zen karameluzko hortzak debekatu zizkion egun hura?

Urte osoa pasatzen zuen udazkenean egin beharreko gauza horiek buruan, udazkena bilatzen zuen, zuhaitzak malkoz burusoiltzen baitziren, eguzkia gutxika indarra galduz zihoan eta koadernoen lehen orrialdea atontzen hasten zen ikastolan (ikastolaren udazkena koadernoen lehen orrialdea da). Ameliarentzat udazkena kolorea da. Eskarlata goibela, nahi bada. Eta kolorea luxua da, mundu zuri beltz honetan. Mundua alderantzikatzen ahaleginduko zela agindu zion behin bere buruari. Tira, sagu-zahar bihurraraztea ez zen hain zaila izango, edo bai? Poloak alderantzikatzea litzateke, hankaz gora jartzea (munduaren udazkena saguzar lotia ote da? Beharbada bai). Alderantzizko munduan bizi

direla pentsatzen zuen, mundu nahasi eta desorekatu hau gorroto dutelako agian. Eta nagusiek diotenez, ez zaie arrazoirik falta. Mundua zoratuta omen dago, gaixo.

Bere zortzigarren urtebetetzean esmeralda koloreko lepoko bat oparitu zioten amatxo biek, beti kolkoan eramateko eskatuz, bihotzaren ondoan. Bai, hantxe zeramatzan ordura arte ere. Hori zen bere udazkena, azkenean aurkitu zuen. Eta horrek bete zion karameluzko hortzek utzitako hutsunea ere. Aitaren hutsunerik ez zuen sentitzen, eta noizbait sentitzen bazuen, lepokoak okupatuko zuen hura ere. Gauzei eskarlata koloreko urtaroa bilatzen jarraitu zuen, baina udazkenero, eta ostegun eguerdi batez, zita izaten zuen dentistarekin.

* * *

Hogei urte bete berritan, ama Idurre ikusi zuen egongelako besaulkian eserita. Iluntzear zen eta azken printzek argiztatzen zuten amaren aurpegia. Ron botila bat zeukan ezker eskuan. Eta zigarro bat, artean piztu gabea. Malenkoniatsu zegoen, nostalgia zerion bere amatasunari, iraganera itzuli nahian ari zen, aspaldian ohi zuen modura. Argazkiak ikusi bitartean oroitzapenak idazten zirauen. Botilari trago ederra eman eta lehengoarekin jarraitu zuen. Ameliak lepokoa estutu zuen, eta amaren ondora arrimatu zen.

– Zer ari zara idazten, ama?

– Atzoko lore lehorrak.

Amelia isilik geratu zen. Isiltasun hori eskuekin uki zitekeen. Biei ematen zien min amatxo Ziortzak utzitako hutsuneak. Idurrek, malenkonia eta nostalgia artean galduta ibiltzeaz gain, deserosotasunaren ertz zorrotzekin egin zuen

topo. Eta oraina alkohol artean itotzen hasia zen, iraganera ihes egiteko esperantza horrekin.

– Begira, maitea, gure iragana oroitzapenez betea dago, eta badira batzuk hainbesteren artean galdu egiten zaizkigunak. Eta nik, hautsa kenduko diet gaur, berriro, hor ere badagoelako bizitza. Atzoko denbora. Joandakoa. Eta zure ama. Horixe du denborak argazkietan, batzuetan memoria gezurtiaren lagun egiten dela, eta bestetan ez duela ezer ahaztu nahi. Berri txarrek presente diraute uneoro, goizero egunkariaren parean jartzean irensten ditut. Eta horregatik nago gaur hemen, gauza goxoak gogoratu nahian. Paper honetan gogoratzen dudana idazten dut. Hitzak soilik idatz ditzaket, atsegin ez ditudanak, behin eta berriro errepikatzen direnak, hitz zentzudunak, hitz goxoak, entzundako hitzik ederrenak, belarrira esaten direnak edota lehen hitzak direnak. Gogoratzen dudana.

– Nik ere ez dut Olentzero ahaztu nahi izan, eta duela bi urte jaso nuen bere azken oparia, amaren gutuna. Ingurura begiratu, ama, dena ez da argazkia, dena ez da iragana, ezta gutuna ere.

– Jada ez dut mundua esploratzen, oroitzapenak bakarrik. Eta argazkien atzean denbora mugitzen da.

Oroitzapenei hautsa kendu behar zaie. Esandako guzti hartatik, horixe geratu zitzaion buruan. Amatxo hautsa astintzen ari zela begitandu zitzaion, sekula ezer garbitu gabe. (Amatxo Idurreren udazkena argazki-albuma da. Eta ron botila astero. Eta atzoko lore lehorrak.)

* * *

Artilezko jertse gorria jantzi zuen kalera atera orduko (artilea neguaren udazkena da). Eta artile gorriaren azpian gorde zuen lepokoa. Aterkia beltza hartu zuen, badaezpada, eguraldi ilunak konpainia egin ziezaion sikiera. Kanpoan, aterkidun itzalak paseatu zuen bere ondoan, uste baino konpainia gehiago, alegia. Itzalak ikusten zituen, mundu gaixoagatik negarrez ari den sabaiaren tantak jasotzen zituen putzuetan. Erruki da zerua. Kaosa, errealitatea eta fikzioa, denak katramilatuta (malkoa da zeruaren udazkena).

Lepokoan arriskuak gordetzen zituen Ameliak, estutzen zuen bakoitzean. Eta bera ere, lehortzen hasteko zorian zegoen. Malkoak betazaletan. Arriskua, esmeraldaren bihotzean. Umetan jolasten zuen parkeko txirristaren magalean eseri zen, eta bakarrik egoteko beharra sentitu zuen. Itxi egin zuen aterkia. Eta han, errukiaren malkoak, etsipenarenekin batu ziren. Arrisku gehiegi zeramatzan lepoan, tentsioa, elektrizitatea, beldurra. Ama ez zen jada bere amatxo Idurre. Rona zen.

Eta deabruaren malkoak imajinatu zituen. Mundua saguzahar bihurtzea bezain irreala zen. Eta gauerdietan pasabidea gurutzatzen zuten amaren oin biluziak gogoratu zituen. Etorkizuna distantzia da, iragana dastatzeko egin beharreko bidaia luzeagoa da, baina gutxienez, ezaguna. Zerbait bilatu zuen besteengan, baina ez zuen jaso, ez zuen aurkitu. Usteldutako esperantzak, ezinezko ametsak.

– Ez dakigu bizitzaren ostean heriotza dagoen. Baina, eta hau al da bizitza?-Hizketan hasi zen, erantzunik bilatzeko gabe.

Askeak zirudien hitz haiek margotzea bururatu zitzaion. Ez zuen paperik. Margorik ere ez. Baina zerua kolore gorriz

margotu zuen, itxaropen gorria bizitzarena omen da. Ameliak bazekien bizitzak koloretakoak direnik, baina non bukatzen diren ez zekienez, zerua bukatu arte margotu zuen kolore gorriz. Eta emozio bat sentitu zuen, beldurra agian? Ez zekien, hala ere, alferrikakoa iruditzen zitzaion emozioei izena jartzea. Lepokoa estutzeko keinua egin zuen. Ez zuen esmeralda koloreko idunekorik aurkitu.

– Zoriontasuna ez da nahi duzun guztia egitea, egiten duzun guztia nahi izatea baizik.-Gogoratu zuen. Eta oihu egiteko gogoa sartu zitzaion.-Sagu gehiegi dauzkazue hirian! (saguen udazkena intxaur oskolak eta gazta dira).

Ez zuen ulertzen zergatik jardun zuen borrokan ordura arte, hura ez baitzen bere gerra. Galdu zuen alaba, galdu zuen emaztea, eta lepokoaz ez zen oroitzen. Bere udazkena ere galdu zuen. Eta hantxe, ronak itota, negarrez eta boligrafoaren tinta agortuta. Udazkenak ez zuen jada eskarlata kolorerik, eta bere udazkena ez zen jada argazki-albuma. Ez zegoen atzoko lore lehorren beharrik. Ez zegoen beste aukerarik orainean eseri eta etorkizunerako bidaia egitea baino. Ohartu zen, baina Ziortza eta, urte batzuetara, Amelia galdu zituenean. Bazekien zergatik egiten zuen negar egunero, ez zuelako ezer osorik oroitzerik lortzen.

– Non galdurik daude oroitzen nautenak?

Minutu batzuk barru, oinpean zuen aulkia bota zuenean, lepokoa estutzeko keinua egin zuen berriz. Bazekien ez zegoela esmeraldazko kristalik, baina idunekoak kendu zizkion arnasa frogatu orduko. Ihes egin zioten, orainak eta argazkiak ikusten utzi zion begiradak eta pasabideko oin biluzien oroitzapenak, parkeko txirristaren magalean.

# Ametsen bila

Sara Abaunza Urionabarrenetxea
Gernika institutua
Gernika-Lumo

Historiaz beteriko zubi batetik igaro eta Neba ibaia zeharkatzea dut amets, batzuek ahantzitako eta besteek Aleksandr Nevskyri leial, ohorez estimatutako gudu gogorrak irudikatuz. Halaber, xuxurlaka darabilt kantuka: «Ey ukhnem... Ey ukhnem... Yeshcho razik, yeshcho da raz...» errusiar azentu egokiaren alferrikako saiakeran. Horrela, Volga ibaiari abesten diot, haize hotzak aurpegia laztantzen didalarik, eta beste garai batzuetan zeharo murgilduta, arraunean noa ama ibaian zehar. Zaintzen eta maitatzen nauen ibaia, bere ur garbi eta gardenetan larritzen nauten beldurretatik babesten nauena, kezka guztiak itsasora helaraziz. Bere barnean seguru sentitzen naiz, poztasunez eta lasaitasunez beteta. Ortzi-mugarantz begira, hiru koloreko aberri eslaviarraren bandera dakusat harro, haizearekin batera kulunka jolasean. Larruzko eskularruak jarri eta begirada San Basilioko dorreetatik haratagora zuzenduz, sortalderantz doazen hodeien formak miresten ditut. Plaza Gorriko eraikuntzen edertasun eta dotoreziaren itzalpean, bat-bateko hotzikara batek gorputz guztia zeharkatu dit. Hala, Ama Errusiako hotz artikoaren besarkada jasatekotan, vodka zurrutada baten desioa datorkit burura. Arnasa sakon hartu eta, mendeku gisa, lurruna bota diot negu krudelari azkenekoz, ostatura sartu aurretik.

Batzuetan gehiegi urruntzen naiz filosofiako ikasgaietako errealitatetik. Urtaro hotz eta gordin honetan batez ere, kaleek inoiz baino ederragoak dirudite ikasgelako leihoetatik at: goizeko eguzki izpien garrasi ahulak, zoruko belartza izoztuaren agoniak eta zuhaitz biluzien bakardadeak kafesne zaporea dakarkidate ahora. Kafesne garratza hala ere. Segundoak minutu bihurtzen dira, eta minutuak ordu, esnatu berria den zeru grisari begira. Halako batean, itsas txori batek inguruko armonia perfektua hautsi du, bere kantuez oihuka. Laster etorriko da ekaitza. Laster etsiko dira eguzki izpiak, beraien alferrikako esfortzuez.

Azkenaldian, abenturez jositako atzerriko bizitza magikoa baino ez darabilt buruan. Nire barne-pentsamendu horietan murgildu bezain laster, beste herrialde bateko aire beharra datorkit, eguneroko errutina deuseztatzeko beharra. Izan ere, hain da kitzikagarria bidaiari baten bizitza... Hainbat sentimendu berri bizi eta bestelakoa den kultura bateko kolore eta usain desberdinak dastatzeko aukera du uneoro bidaiariak. Mundu fantastiko bat bailitzan, lilura eta etsipena bateratzen dira nonahi, erakargarri zaidan atmosfera ezezagun horretan. Italiako bihotz beroa, Jamaikako erritmo erlaxatua, New Yorkeko haize modernoa, Greziako iraganaren presentzia eternoa... Nork ez du ba, Pariseko *glamour*-az gozatu nahi? Ilustrazioaren garaiko kafetegi barroko batean sartu eta «*Bonjour, monsieur, je voudrais un café au lait, s'il vous plaît*» ezpain artean ahoskatuz, kantoi batean eseri eta *Le Monde* egunkariko titular irribarretsuak irakurriko nituzke lasaitasunean. Hala ere, hemen naiz. Ikasgelako mahai bakarti honetan, ameslari.

Historiako irakaslea SESBaren garaiari buruz hitz egiten hasi da kementsu, eta berriz ere, nire pentsamenduek herrialde

errusiarrera egin dute ihes. Moskuko metroan nago orain, lurpeko jauregiko geltoki nagusian, hotzetik salbu. Begirada marmolezko zutabeetan gora doa egonezinez, sabai barrokoko mosaiko zaharren handitasunaren aurrean harri eta zur gelditu arte. Kolore zurbileko horma horiak eta txikitan banan-banan zenbatzen nituen kartel argitsuak gogoratzen ditut, dotorezia nonahi arnastuz. Amonak hainbeste aldiz aipatzen zizkidan urte gogorrak oroitu ditut orduan, errusiar iraultzatik hasi eta, gerra hotzari zein *perestroika*ri buruz mintzo zen iragan gozo hartan. Askatasunaren bandera gorria irudika nezakeen, harro, eder, amonaren begi-ninietan islatuta. Behin eta berriz kontatzen zizkidan Euskal Herrira ihesean etorri behar izan zen garaiko abentura harrigarriak, eta nik begiak kliskatu gabe aditzen nituen, bere altzo bigunean gustura eserita.

– Amets egitea beharrezkoa da, Natasha –esaten zidan beti, bere ohiko txokolatezko bizkotxoa labetik atera orduko– baina gure ametsetan sinesteko baldintzapean. Bizitza erreala aztertzeko, behaketa hori gure ametsekin alderatzeko eta gure fantasia propioak sortzeko baldintzapean.

Nik baietz egiten nion buruaz, guztiz ulertzen ez nuen arren. Esaten zuena esaten zuela, arrazoia ematen nion amonari, jakinduria handiko emakumea zela iruditzen baitzitzaidan. Gaur egun ordea, garbi ikus dezaket esaldi horren bitartez amonak helarazi nahi zidan mezua, eta berarekin elkarrizketa sakon hura jarraitzeko beharrizana pizten zait bularrean, txokolatezko bizkotxoari, birrindu aurretik, gerra deklaratu bitartean. Amaigabeak bihurtuko nituzke une haiek, denbora gelditu z. Labearen beroa eta amonaren ahots otzana eztizko mila laztan bezala berriro sentitu nahiko nituzke belarri ertzean, behin eta berriz.

Bada ametsak gauza eskuraezintzat dituenik. Baina zein gizaki mota izango ginateke betetzeke daukagun ametsik gabe? Nahirik eta borrokarik gabe? Amonak bere amets guztiei uko egin behar izan zien, Errusia iraultzailea abandonatu eta ezaguna zuen guztia atzean utziz. Hala ere, amets berrien bila abiatu zen, ezezagunean murgilduta eta etsipena azken baliabidetzat zuela. Azken batean, ametsik gabe errai eta beldur pilo bat baino ez gara.

Heldu da azkenik, klase eternal hauetatik irteteko ordua. Institutuko atea indarge bultzatu dut, baina gogoz aldi berean, eta berehala dozena bat ikasleren zigarroen keak ongietorria eman eta birikiak estu besarkatu dizkit. Sakon hartu dut arnasa, askatasuna dastatzekotan, eta ondoren, atzean utzi dut ke-lainoa agur batez.

Hasi dira Gabonetako argiak jartzen jada, kolorez busti dira espaloi bakartiak, eta irribarreak agertzen hasi dira aurpegi zurbiletan. Gabonetako irribarreek ordea, kaleetako argien iraupen berbera izan ohi dute, Eguberrietako espirituaren arrastorik txikiena ere bat-batean desagerraraziz. Halako batean, argi artean, Ruben azaldu da dirdiratsu. Une horretan gogora etorri zaizkit behin esan zizkidan hitzak:

– Ez dit axola emakume baten larruazala melokotoi batena edo paper latz batena bezalakoa den. Ez diot garrantzirik ematen bere hats afrodisiako edo intsektizidari. Erabat gauza naiz azenarioen erakusketa batean lehenengo saria irabaziko lukeen sudur bat jasateko. Baina hori bai, eta honekin oso zorrotza naiz: ezin badu hegan egin, denbora galtzen du nirekin.

Zer pentsa handia eman zidan hitzaldi hark. Esna ematen nituen gau guztietan gogoratzen nuen teoria hura, ados ez

nengoela ondorioztatu arte: nire aburuz, bada hegan egitea baino gauza garrantzitsuagorik. Azken batean, hegan egitea bakoitzaren esku dago. Maitasunak gailurrera eramaten gaituenean egiten dugu hegan, ez prest gaudenean, prest egon nahi dugunean baizik. Segundoko frakzio bakoitza bere ondoan berezia dela sentitzen dugunean.

Benetan garrantzitsuena bere distira da. Bizitzaren joanean, argizko aura bat askatzen duen norbait agertu ohi da, inguruko gauzen edertasuna desagerraraziz. Distira horiek energiaz betetzen gaituzte barnean, norberaren arima ere argiztatuz. Hala, bata bestearengandik banatzerakoan, argi dirdirak itzali eta ahul sentitzeraino heltzen gara. Beraz, nik beti bilatu izan dut hurbil sentitzen nauenean piztu eta itzaltzeko beharrizanik ez duen norbait. Eta norbait hori Ruben da.

Etxean bakarrik dagoela esan dit eta berarekin abiatu naiz arratsaldeko zeru tristearen azpitik. Nik beldur naizela aitortu diot, gero eta izpi distiratsuagoak baititu, eta sua hartuz gero arriskutsua bihur daiteke gure arteko hau. Zer gertatuko litzateke argi izpien ordez, sugarrak askatuko bagenitu? Ez dakit… inoiz ez dut inor maitatu nahi izan eta orain dena da perfektua. Gehiegi berotzen dut burua, agian.

Rubenen logela oso txukun egoten da beti, ni heldu arte. Ezin dut ordena jasan. Logela batek jabeari buruzko informazioa eman behar duela uste dut, pertsonalitatea agerian utziz, biluzik. Eta hala, Rubenek gerritik heldu eta nire gorputza guztiz biluzten saiatu da. Ez du lortuko ordea, eztarriko korapilo hau askatzea ezinezkoa baita.

– Bihar Errusiara bueltatuko naiz – esan diot azkenean, burumakur. Korapiloa ez da arindu, sendo darrai, eta arnasa ondo hartzea galarazten dit.

Aurpegia guztiz aldatu zaio eta, desorientatuta bezala, begirada galdu du nire aurpegiko lekuren batean. Ez du txintik ere esan gau osoan. Ez dago hitzen beharrik malko artean estu besarkatzen nauen bitartean.

Txikitatik saldu digute amaiera zoriontsuaren ideia. Hala ere, zerbait amaitzen baldin bada, ezinezkoa da zoriontsua izatea. Denak du amaiera bat: udako azken eguna, gustuko liburuaren azken kapitulua edo jaioterrira bueltatu eta handik urruntzea. Amaierak saihestezinak dira. Udazkena heltzen da, liburua zarratzen dugu eta agur egiten diogu elkarri. Ezaguna dudan guztiari agur egiteko unea da, erosoa zitzaidan guztiari. Hurrengo orrialdera igarotzeak min ematen du. Banoa amets berrien bila. Hala ere, nire parte garrantzitsu bilakatu den hori hor izango da. Bera da nire lur tinkoa, nire iparrizarra, nire bihotzean beti entzungo dudan ahotsa. Beti.

# Oroitzapenen azken geltokia

Maialen Madariaga Intxaurraga
Arratia institutua
Igorre

Oroitzapenen azken geltoki horretan zer ote dagoen galdetu diot nire buruari. Trenak, seguruenik Erromara doazenak, Dublinera, Lisboara. Eta jendea, keinuka, badoazenak agurtuz eta bueltan direnak besarkatuz, hunkituta. Urduri eta presaka, ilusioz beteriko maleta eskuetan dutelarik. Lanera, oporretara, lagunekin, itxaropenaren atzean, amarekin, maitasunaren habiara bueltan, bakarrik, bakardadetik ihesean edo bizitzeko arrazoiren baten bila, desesperazio hutsez. Bartzelonara, edo Bilbora akaso.

Triki-traka, triki-traka, otsaileko euri zaparrada gogorraren doinua lagun, arerio, banindoan etxerantz, monotoniari jarraiki, etxerantz. Edo lagun? Berak markatzen zituen akordeak abestea, gutxienez, isiltasunaren ezereza estaltzeko baliagarri suertatzen baita sarritan. Besteen sinfonian bizitzera ohitu denak ez baitaki bere pentagrama betetzen. Nota bakun bat nintzen, norbaitek bere bizitzaren konpasera gonbidatuko ninduen esperoan, etengabeko kalderoi amaigabean, geldi. *Piano-piano* armonia tristean etxerantz. Triki-traka, errail herdoilduen txirrio bakoitzak gero eta ahulago egiten ninduelarik. Txistu bortitz haien artean, egunkariek hatz umelekin topo egitean sortzen duten xuxurla, zein lagunen arteko berbaroa. Baina hori guztia aldameneko bagoian, nire inguru hartan isiltasuna baitzen jaun eta jabe, abesti denen

idazle eta uhin ororen nagusi. Hots uhinak zein argi izpiak zituen bere menpean, iluntasuna bidaiari bilakatuz. Iluntzeko azken eguzki printzak ere mespretxuz ihes egin zuen agonia hartatik, laino lausoak armarri bailiran erabiliz. Eta koloreak ere ostu egin zizkidan, zoriontasunaren erreinura erbesteratuz, grisa ahaztu egin zitzaion, antza, Bilbora zihoan bagoi mortuan.

Haizea sentitu nuen orduan, fin zebilen, zirrikitu bihurri orotatik bere presentzia nabarmendu nahian, jostari eta ezkutuka. Beti ere hatz puntetan eta iskanbila saihestuz. Nire antza hartu nion. Nire negar malkoek ere noraeza zuten iparrorratz, norbaiten azal leuna laztandu nahian. Isiltasuna maite zuten hauek ere, baina apaltasunaren aurrean bizitzari ari ziren garrasika. Maitasunari, konplizitateari, zoriontasunari, abesti berri bati, zuri. Baina haizeak berak ere entzungor egin zidan, ez zeukan erretratu hartan parte hartzeko indarrik. Eta krudel, gupidarik gabe, aurrera, bihotza izozten zidalarik. Bihotza, gogoa, irribarrea eta ilusioa. Bizitzeko adorea. Edo baliteke aspaldi leituak izana, aspaldi ez, nire ametsek gauero biziberritzen zuten udako arratsalde hartan baizik, abuztuan ere badelako ihintzik batzuentzat. Triki-traka, triki-traka, bakardadea gidari.

Han, horizonte urrunarekin topo egin zuten nire begi umelek, bakardadeari zerion hezetasunaren emaitza. Horizontea begitan, goiz hartako bisita ekarri nuen gogora. Han bigarreneko Asun, bere loredun amantal txukun eta guzti, goizeko lehen nagiek ere antzeman zezaketen usaina zerion lapikoa eskutan. Asunen goxotasunak irribarre txiki bat lapurtu zidan, horizonteak hauteman ezina, hala ere. Sukaldeko izkina hartan, Asunen lapikoak babesten zuen txokolate bero hori zen nire esperoan ziharduen bakarra. Haren epeltasuna miazkatuz eta trenaren kulunka xaloen

poderioa sentituz murgildu nintzen ametsen doinuan. Zureak baino ez ziren ametsei zaporea gehituz. Artean ez bainekien bakardadeak txokolate usaina zuenik.

Zapore eta miazka kontuek minutu gutxi iraun zutela islatu zidan leiho gardenetik haratago lauso agertzen zen parke huts hark, oraindik etxera iristeke haizearen ufada ugari sentitu beharko nituen seinale. Baina, egia esan, ametsaren amaiera baino hasiera besterik ez zen izan. Lo-kuluxka hartatik ez baininduen trenaren triki-trakak iratzarri, ezta goizeroko iratzargailu zatarrak ere, are gutxiago hirugarreneko ume txikiaren kasketaldiak edo bidaia bukatu zela jakinaraztera hurbildutako makinista petralak. Zu, zu zinen han, hain zurea zenuen irri maitagarri hori oraindik presente. Ametsa? Bai, orduan hasi zelakoan nago, hainbeste aldiz imajinatutako lo sakon eta goxoa.

Bi muxuz agurtu ninduzun, ustekabean. Noski agertu zela deseroso nire lotsa zure masail zolien aurrean. Gorrituz, kirioak dantzan jarriz, bihotza dar-dar eta aldi berean berotuz. Baina epeltasun hura ez zen bihotza biguntzen eta osatzen zuen horietakoa, ez. Eta hainbeste urteren ondoren, arratsaldero esfortzuz itxitako leihoaren izkina bihurritik kukuka zebilen haize ufada eskertu egin nuen.

Bartzelona aipatu zenidan, Bartzelona eta bere edertasuna, hiriaren xarma, itsasoaren lasaitasuna, aireari zerion kresalaren kolorea, aparrak zekarren freskotasuna, berria eta modernoa. Mota guztietako uhinak dastatzen zirela bertan, kafe beroa neguan eta fraka motzak uda partean. Kaleko musikaren eraginpean dantzan zihardutela gau eta egun poztasunaren paradisuan. Alaitasunez marraztu zenidan bizitza berria. Zu beti bezain poeta! Hala ere, ez dut uste hiria

hain hain «perfektua» izango denik, nik ez diot aparteko ezer antzematen behintzat. Mundu gris honetan ez al da kaferik hartzen ala? Bihotza bero dagoenean, beltza ere berpiztu egiten dela diote, zu horren adibide. Bizitza berria azaleratu zenidan bai, bakardadea baino usaintzen ez zen tren hartatik urruti, lehorretik at, bustia maitez, nigandik ihesean betetzen joan zaren argazki bilduma lau haizetara oihukatuz, zareten esan beharko nuke apika. Zuk zenioen antzera, maitasunaren erreinuko sirenatxoa besarkatuz.

Kresal, malekoi, bits eta portuak hizketa-gai Gorbeiako larre orlegia etorri zitzaidan gogora, kulunka leunen sentsazioan. Gorbeia, hotz zein bero, zuri edo berde, elur ala lore, guretzat beti agertzen zen dotore. Baina bertan ateratako argazkiak horitu egin dira dagoeneko, urdindu, edo baliteke une hartan bertan zuri-beltzean atera izana ere, han ginenok barnean dugun argi txikia islatzeko gai ez izanaren akats. Edo agian bertute, askotan zuri eta beltzaren kontraste bortitzak azalerazten dituelako ongien sentimenduak. Sentimenduak ugari, besarkadak, begiradak, barreak, asko, negarrak ere bai, nahi baino gehiago agian. Eta hasperenak, lurraren hasperen sakonak, zureak zein nireak, plazer hutsaren oihartzun. Oroitzapen andana, batez ere negar gehiegi.

Baina ez genuen beste udako arratsalde lehor hura tren hartako sentimendu hatsa dastatzera gonbidatu. Egun hartan ez zen larre orlegirik, lur leunik, ezta belar freskorik ere. Are gutxiago portu, kresal, uhin edo olaturik. Ez hasperenik ezta muxurik ere. Bi banku pasealekuaren amaieran, haritz haren gerizpean babestu nahian eta listo. Eta zu eta ni. Zu, ni eta besteak, zure pentsamenduko besteak. Aspalditik zetorrela arazoa azaldu zenidan, ez zela Bartzelonara egindako

bidaiaren ondorio. Bertako kresalaren hats garbiak zabaldu zizkizula begiak baina. Hango argitasun eta bakeak erakutsi zizun antza orduan zeukana ez zela haina. Zuk ere abesti bat nahi zenuen, bizitza alaituko zizun armonia. Nirea, aldiz, heze zegoen, tristurak hondatu zuen sentimenduen partitura. Notak noraezean zebiltzan, ez zuten haien burua maite. Zuriak ziren batzuk, borobilak gehienak, baina kortxea izan nahi zuten. Arinak eta biziak, betirako lotuak. Zuk aurkitu zenuen kortxea hori bada. Bartzelonako pentagraman. Hau ere uretatik hurbil, itsasoaren akordeetan. Baina optimismoz beteriko akorde tantetan, konplexu eta beldurretatik aske.

Oroitzapen haiek aspaldi, udako ihintz hartan, gogortutako grina berpiztu zidaten. Zure musikaren parte izateko gogoa, berriro ere Gorbeiako oihartzunak sentituz eta maitatuz. Nire gabeziak bete eta zoriontasunari bisita egiteko beharra. Lau haizetara oihukatu nahi nuen barrenean neraman hura, izuak eta konfiantza ezak denboraren laguntzaz nahastutako korapiloarekin behingoz bukatzeko irrika. Baina mataza horretan jadanik ez dago muturrik. Bertako hariak galdu egin dira atsekabearen artean. Jadanik ez dago haririk. Maitasunaren hariak, luzea eta fina, kolore anitzekoa, ihes egin du gehiegi tenkatu baikenuen. Konplizitatea ere arrotz da gure arteko uhinentzat, hau ere denboraren lorategira eramango zuen distantziak, apika, edo oroitzapenaren azken geltokira bestela. Bagoi hartan behintzat ez zegoen, haizeari bidean erori ez bazitzaion. Baliteke hau ere matazan zehar ibiltzea, bere burua ezin espresatuz. Gustuko nituen hariak. Baina korapilatuz joan ziren, ilusio berriek, ametsek zein gehiago nahi izate horrek egin zuten moropiloa. Jostun batzuk saiatu ginen hariak gogortzen, ezelako guraize zein labanen aurrean tinko jarraituko zutenak sortzen. Azkenean ura izan zen hariak bigundu eta elkarren babesean nahaspila

sortu zuena. Jostunen begietatik jariotako malkoak. Orratzen ziztaden aurrean edonor agertzen baita ahul. Orain bi botoi soil gara, askeak, kaxa zaharrean ahantzitakoak batzuk. Ez dago botoiak lotuko dituen haririk. Eta harien faltan, bihotzak irrikak aitortzeko sentitu zuen kinada, orratzaren ziztada, iruntzi eta niretzat gorde nuen. Aurrean neukan botoiak hartua baitzuen erabakia, arrats bero hartan, nahiago zuen Bartzelonaraino hel zitekeen hari luze, fin, koloretsu eta josi berria.

Zabaldu dira ateak, bukatu da bidaia. Isildu da triki-traka azkenean, hitzak ere moztuz. Ez agurrik, ez adiorik, muxu hotz batekin urrundu ginen. Bagoi hartako bakardade tristeak zure humorea ere kutsatu izan balu bezala. Hotz gelditu zinen hizketaldiaren ondoren, oroitzapen zaparradak zapore garratza izan zuen antza. Bartzelonako goxotasun harekin kontraste gehiegi akaso. Edo baliteke zure barneko energia positibo hori aireko uhin hutsetan zehar niganaino hegan etorri izana. Izan ere, hirugarren bagoiko ate haiek zabaldu bezain laster irribarrea igarri nuen, pixkanaka-pixkanaka zabalduz, tristura aldendu eta arimaren jabe eginez.

Haize ufada bortitzak bizitzaren laztan iruditzen zitzaizkidan, euri tantak berriz freskotasun eta garbitasunaren seinale hutsa. Sakon hartu nuen arnasa, gogoz, begiak itxi eta ausart egin nion aurre munduari. Libre sentitu nintzen, behingoz aske, txikitasunetik handitasunera bidaiatuz eta dena nire menpe zegoela sinetsiz. Treneko bidaia hartan ohartu bainintzen jadanik ez dagoela haririk. Ez nau maitasunak lotzen, ezta konpromisoak edo betebeharrak ere. Biok bakarrik gaude orain, ni eta zu. Bizitza. Ez dago besterik. Eta harien korapilo hori apurtzea zein erraza den konturatu nintzen, bizitzeko gogoa, hori da behar den guraize bakarra. Adorea

bildu eta zazt! Matazaren leherketa, beldurren deuseztapena, tristuraren agurra, konplexuen adioa eta depresio zein bakardadearen suntsiketa, denak izan ziren bat.

Momentu hartan jaio nintzen, orduan hasi nintzen bizitzen. Bizitzea ez baita arnasa hartzearen sinonimo soila. Amestean datza bizitza, eta ametsak lortzeko ilusioan, gogoan, kinada eta estimuluei jaramon eginez aurrera egitean, hausnarketa sakon eta arrazoiari tokia mugatuz, pozarren eta ausart. Ederra da bizitza, treneko bagoi grisetik irteten jakitea da kontua, ate haiek beti ez baitira automatikoki zabaltzen. Hori da zailtasuna, betiere geltoki aproposa aurkitu ondoren. Askatasunaren argitasunak ere batzuetan min egiten baitu begietan. Oroitzapenen azken geltokia, atsekabearen helburu eta amaiera. Han gelditu ziren hariak, isiltasunaren akordeak, botoiak, jostunak, Bartzelona, itsasoa eta kresala, Gorbeia, hasperenak, maitasuna, muxuak, zotina, malkoak, bakardadearen doinua, zuri-beltzeko argazki sorta, sirenatxoak eta tristura. Oroitzapenaren azken geltokiak erakutsi zidan bizitzaren aurrean malgu eta irmo agertzen, disfrutatzen, bakardadean bada ere gustura sentitzen, negar malkoetatik urruti, nik ez bainuen bustia maite. Geltoki hark zein lagunek, gurasoek, bidaiek, istorioek edo bidaiek.

Hala ere bada oroitzapenaren azken geltoki hark irakatsi ez zidan zerbait. Tabernetako hizketaldien hutsuneak betetzen laguntzeko musikaren beharra sentitzen dut oraindik, autobuseko bakardadearen aurrean ere entzungailuak beti gertu, erromantizismoari deiadar egiteko ere hor abestiren bat, kandelen argizari soila ez baita nahikoa, gau amaigabeetako hausnarketa eta ezinegonen sendagai, doinu lasaiak, loa azkartu nahian, egunsenti alai eta kementsuen aurrean ere bai bada ez bada, ez dezaten indarra lehenengo ziztadan

galdu. Zoriontasunaren edo melankoliaren doinuak burutik ezabatzea ez da hain erraza, bakardadea lagun den artean. Norberaren bizitzako pentagrama ezin dutelako nota solteek (kortxea, fusa, zuri, beltz zein borobil) bete edo apaindu. Gure abesti propioa konposatzeko ikur baten presentzia da lehenengo funtsa, sol, fa zein do. Oroitzapenen azken geltokiak ez daki zer zen musika ordea.

# Ilargiaren melodia

Leire Melgosa Ecenarro
Elgoibar institutua
Elgoibar

Ez dakit zergatik baina azkenean ezin izan nion uko egin Amaiaren eskaintzari, eta urriko astearte hartan Euxebia zelako atso baten etxe atarian bildu nintzen berarekin. Baziren hiru aste babokeriak bata bestearen atzetik egiten nenbilela.

Irailean hasi zen dena, kurtsoa abian jarri zen egun berean. Urtero lez, ikastolako atean bildu ginen ikasle eta irakasle guztiok. Aurpegi batzuk ezagunak ziren, beste batzuk ordea, berriak. Bazeuden intelektual itxurako batzuk, kirolzale antza zuten beste batzuk..., lodiak, argalak, altuak, baxuak, beltzak, zuriak, betaurrekodunak… eta han, erdi-erdian bazegoen neska bat, ez altu, ez baxu, ez lodi eta argalegia ere ez zena. Perfektua zen, Amaia zuen izena. Hasiera-hasieratik maitemindu ninduen.

Egunero usaintzen nuen bere perfumea, egunero agurtzen, egunero begiratzen. Behin eta berriro. Astebete pasatu behar izan zen lehenengo aldiz berarengana hurreratu nintzen arte, baina ondoren pixkanaka elkarren arteko laguntasuna handituz joan zen.

Bigarren asterako arratsalde eta asteburuetan ere planak egiten genituen. Noski, beti berak nahi zuena, ez bainintzen gai edertasun hari ezetzik esateko. Bera ezagutu aurretik, nire

buruan zehar barreiatuta zeuden ideia apurrak motokroseko motorrarekin edo parranda eta ligatzearekin lotuta zeuden. Baina ez dakit ez nola ez zergatik guztiz aldatu ninduen. Pentsa, ni neu, Aitor Beobide, auzoko makarrena zena, manifestaldi ekologistetara joaten, ibaia garbitzen eta abandonaturiko katakumeak etxean hartzen. Zerbait gertatzen zitzaidan eta okerrena zen banekiela zer zen, maitasuna ate joka zebilkidan.

Hala ere, ez ziren horiek izan egindako okerrenak. Urriko lehen zapatuan egin nuen azkena: alzheimerdun pertsona edadetuak laguntzeko elkarte batean eman nuen izena. Beste behin Amaiak sorginduta.

Amaiak aspalditik egiten zuen lan elkarte horretan eta, beraz, lehenengo egunean lagunduko zidala hitz eman zidan. Hala, Madalena kaleko hamalaugarren zenbakian arratsaldeko bostetan elkartzea hitzartu genuen, Euxebia Arraizaren etxean.

Oso urduri nengoen, ez bainekien zer egin. Aldaba altxatu eta grabitatearen indarraz erortzen utzi nuen, egurra jo zezan. Atearen beste aldetik metro eta erdi baino zertxobait gehiago neurtzen zuen amonatxo irribarretsu batek burua atera zuen. Pauso batzuk atzeratu eta sartzeko lekua utzi zigun. Amaiak elkar aurkeztu gintuen eta, joan aurretik, «primeran egingo duzu» xuxurlatu zidan belarrira.

– Aitor ondo zaindu gero e, Euxebi!-hori esateaz batera, eskua jaso zuen agur eginez.

Esaldi nahiko paradoxikoa, izatez ni nintzen zaintzailea eta.

Atsoak ile urdin-urdina zuen eta zimurren artetik hizketan hasi zitzaidan:

– Jarri zaitez lasai, mutiko. Nahi al duzu zerbait?

Ezetz erantzun nion, eskerrak eman eta eskainitako besaulkian eseri nintzen. Ez zirudien inolako arazorik zuenik, baina geroago konturatuko nintzen bazuela buruan ondo ez zegoen zerbait, eta ez zen alzheimerra.

– Beno, gazte, kontaidazu zerbait zuri buruz.

Ez nekien zer esan amona hari, baina hala ere, hitz egiten hasi nintzen, esango nion guztiak axola balio bezala:

– Baaa, hamazazpi urte dauzkat eta bigarren batxilergoa hasi berri dut. Osasun zientzien bidea jarraitzen ari naiz, hematologo izan nahi dut eta. Gehien gustatzen zaidana etxean egindako kroketak dira, eskolaz kanpo ingeleseko klaseetara joaten naiz eta akordeoia jotzen dut.

– Akordeoiaaa??

Aurpegia ilusioz bete zitzaion eta azal tolesduren artean ezkutaturik zeuzkan begiak malkoz busti zitzaizkion. Badaezpada ez nion ezer galdetu, hanka sartuko ote nuen beldur. Hala ere, berak hitz egiten jarraitu zuen.

– Nire maiteak, Anakletok, akordeoia jotzen zidan ilargi beteko gauetan.-negar zotinka hasi zen eta gupida sorrarazi zidan, bizitza gogorra izan zuela zirudien.-Baina horiek, horiek aspaldiko kontuak dira, gazte, orain ez dago Anakletorik.

Alarguna zela pentsatu nuen orduan, baina usteak erdi ustel direla konturatu nintzen geroago. Amonatxoak ahoa beste behin mugiarazi zuen:

– Maitea, mesede bat eskatu nahi nizuke. Badakizu, gaitz honek poliki-poliki memoria jaten didala eta memorian gordeak ditut nire bizitzako momenturik onenak, galdu nahi ez nituzkeenak. Egunero zerbait ahazten dudala konturatzen naiz, nire zati batek ihes egiten duela, harrapatu ezin dezakedan leku urrun batera, pipatik irteten den kea desagertzen den moduan.

Oso tristea zen kontatzen ari zitzaidana, eta une batez bere lekuan jarri eta sufritzen ari zen min hura guztia sentitu nuen, nirea balitz bezala.

– Eskatu nahi duzuna.-esan nion irribarre txiki batez lagunduta.

– Nire historia idatzi behar duzu. Gogoratzen ez dudanean, gauero irakur diezadazun.

– Saiatuko naiz, baina ez naiz oso idazle ona.

– Historia egina dago, gazte. Seguru ondo egingo duzula.

– Ados orduan, baina orain afaltzeko ordua da, zerbait prestatuko dizut.

Hozkailuan hiruzpalau gauza besterik ez zituen eta ahal bezala prestatu nuen afaria, tortilla urdaiazpiko eta gaztarekin. Gustura jan zuen behintzat.

Etxera joan aurretik erosketa egingo niola agindu nion eta musu eman zidan bekokian.

Gauean etxera iritsi bezain laster, Amaiari deitu nion dena kontatzeko eta pozik jaso zuen nire deia, harro zegoen nitaz eta egiten ari nintzenaz, edo hori zirudien behintzat.

Lotara joan aurretik pentsatzen jardun nuen tarte batez, Euxebik kontatuko zidanaren inguruan eta akordeoiak ekarri zizkion oroitzapenak asmatu nahian. Hurrengo egunean akordeoia eramango nion.

Asteazkena zen eta eskola bukatu bezain laster etxera joan eta ziztu bizian bazkaldu nuen erosketak egitera joateko. Nire etxean harritzen hasiak ziren nire ordutegi eta jarrera aldaketekin, baina hala ere ez zuten ezer galdetzen, badaezpada.

Gauza mordoa erosi nizkion eta laurak jo zutenerako Madalena kalean nintzen. Bizipoza nabari zitzaion amonari akordeoia bizkarrean ikusi zidanean.

Erositako guztia hozkailuan eta armairuetan gorde eta kafea egin nuen biontzat. Egongelan eseri ginen parez pare, mahaitxo txiki batek banaturik. Koadernoa eta bolaluma eskuetan hartu eta kontatu behar zidana entzuteko prest nengoen, baita bera kontatzeko ere.

*Euxebia Arraiza Mutrikun jaio zen 1926an, apirilaren bostean. Ahizpa biki bat zuen, baina hura hemeretzi urterekin hil zen tuberkulosiak jota. Neskame lan egin zuen arregitarren etxean. Hogei urterekin bere printze urdina aurkitu zuen, Anakleto, baina handik lau urtera gerrara joan behar izan zuen. Hiru urtez elkarri idatzi zioten baina Anakletok*

*ez zion erantzun Euxebiren gutun bati, ezta ondoren bidali zizkion hamabiei ere.*

*Euxebi asko akordatzen da bere maitasunaz, gogoratzeaz gogoratzen denean behintzat eta beti egiten du gauza bera: ilargi betea dagoenean leiho ondoan esertzen da zeruari begira eta Anakleto imajinatzen du bere ondoan akordeoia jotzen, aspaldiko urteak gogoratuz. Bi gauza horiek mantentzen dute bizirik: Ilargiak eta akordeoiak. Berak dio Anakleto hilda badago han goian egingo duela argi eta akordeoi hotsa, ezinezkoa ahaztea, Anakletoren esku arinek sortzen zuten melodia goxoa.*

Ezin ezetzik esan, koadernoan apuntatu berri nuenak hunkitu egin ninduen. Mila eta bat aldiz irakurriko niola esan nion Euxebiri, nor zen ahaztu ez zezan eta edozer gauza behar bazuen ere han egongo nintzela. Jarraian aulki bat leiho ondoan jarri nion eta akordeoia jo nuen.

Kopetan beste musu bat jaso ondoren, Amaiari deitu nion gertatutakoa kontatzeko. Ados geunden biok, Anakletori zerbait gertatu behar izan zitzaion. Hurrengo egunean hitz egingo genuela adostu genuen eta elkarri gabon esan ondoren bakoitza bere ohean sartu ginen, baina pentsamendu bera konpartituz.

Amaia eta biok herriko plazako taberna batean eseri ginen Euxebiren historiaz hitz egiteko. Agian Anakleto aurkitzen saia gintezkeela pentsatu genuen, baina ez zen gauza erraza izango. Hala ere, saiatzea erabaki genuen, Euxebik merezi zuen eta.

Hemendik eta handik hari batzuk mugitu zituen Amaiak eta azkenean Anakleto Etxeberria non zen jakin genuen.

Bilboko egoitza batean bizi zen. Autobusa hartu eta harantz abiatu ginen.

Harreran beragatik galdetu eta hirugarren solairuan zegoela esan ziguten. Haraino joan ginen eta agure altu batekin topo egin genuen. Honek ere bere historia kontatu zigun, hunkiturik, eta Euxebi, bere Euxebi, ekartzeko eskatu zigun begiek dir-dir egiten ziotela.

*Gerrara joan zenean beti akordatzen zen bere printzesarekin. Ahal zuen guztietan idazten zion eta bere gutunak ezer baino gehiago espero zituen. Behin ordea, bala batek buruan jo zuen eta amnesia eragin zion. Dena ahaztu zuen, gauza bat izan ezik, Euxebi. Hala ere, beste leku batera trasladatu zuten eta ez zeukan modurik bere maitearen berri izateko eta ez zuen helbidea gogoratzen idatzi ahal izateko. Nahiz eta kontaktuan ez egon ez du Euxebi inoiz ahaztu eta ilargi beteko gauetan bere akordeoi zaharra kutxatik atera eta abesti bat eskaintzen dio bere maiteari. Horrek ematen dio bizitzeko indarra.*

Amaiak eta biok elkarri begiratu genion entzun berri genuenak hunkiturik. Nik koadernoko orrialde bati buelta eman nion eta Anakletori Euxebik kontatutakoa irakurri nion. Benetan zen polita une hartan bizi izan nuena.

Anakletori hurrengo egunean Euxebi eramango genuela hitz eman genion eta behin eta berriz eskerrak ematen jardun zuen joan ginen arte. Jaungoikoak bidalitako aingeruak ginela eta ezin izango zigula inoiz eskertu.

Hurrengo goizean Amaia bere aitarekin etorri zen autoan eta hirurok Euxebiren etxera joan ginen bere bila. Autoan gindoazela gertatutako guztia kontatu genion eta negarrez

hasi zen, ilusioari eutsi ezinik. Honek ere esker oneko hitzak mila eta bat aldiz errepikatu zizkigun.

Egoitzaren sarrerara heldu ginenean, Euxebi ez zen gai tente mantentzeko ere, pozaren pozez. Amaiak eta biok beso banatatik heldu genion eta hirugarren solairuraino eraman. Han, 345. logelaren atea zabaldu eta bi zahartxoek elkar besarkatu zuten.

Bata bestearen alboan etzan ziren eta bihotz taupadek bat egin zuten. Bi arimak batean bildu eta gozo-gozo taupaden erritmoa geldotzen joan zen. Bata bestearen zain zeuden une hura iristeko. Gelako makinek taupaden soinuek utzitako hutsunea bete zuten alarmaz.

Amaiak bi besoez lepoa inguratu eta aho ertzean musu eman zidan.

# PROSA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Motoredun latorrizko auto gorri txikia

Larraitz Fagundez Osa
Armentia ikastola
Gasteiz

Batzuetan horrelakoak egiten ditut, goiza metroan pasatzea bezalakoak. Bagoiz bagoi irakurrita ez dudan libururen bat eskuartean duen norbaiti hori duela gutxi irakurri dudala eta zeinen ona den esaten diot irribarre zabal batez edo «Ez zara benetan ipuintxo ziztrin hori irakurtzen egongo, ezta?» modukoren bat botatzen diot. Bata ala bestea, dudan umorearen arabera edo liburuaren jabeak duen itxuraren arabera. Batzuetan aurreiritziei bidea libre uzten diet. Inork haserretu eta builaka amaitzeko planta baldin badu, zeinen liburu txarra den aurpegiratzen diot eta inolako zentzurik ez duten argudioak emanez pasatzen dut eztabaida (jakina, ez baitut irakurria). Benetan badago biziki gustuko dituen liburuak kritikatuz gero, lepoa moztuko lizukeen jendea. Begi zorrotza eduki behar da, besterik ez. Bada, horrela pasatzen ditut goizak aspertuta nagoenean eta inuzentearena egiteko gogoa dudanetan, eta ez dut beti izaten. Inork ez du beti edozertarako gogorik izaten, nahiz eta zinez gustuko duen zerbait izan. Normalean, inoiz esan dioten bitxikeriarik arraroena entzun balu bezala begiratzen dizu jendeak horrelako zerbait esaten badiozu, benetan. Nik ondo pasatzen dut. Pentsatzera ere bertara joaten naiz edo inspirazio bila nabilenean... Jende askok ez daki, baina benetan inspirazio iturri itzela izan daiteke. Oraindik igarri ez baduzue ere, atsegin dut metroa.

Kontua da goiz hartan, gutunarena zela-eta, ideiak zertxobait argitu beharra nuela, edo gutxienez apur bat seneratu eta lasaitu beharra. Beharbada ez zenuten uste izango, eta nire ezagunen bati galdetuko bazeniote ziurrenik berdin pentsatuko luke, baina horrelako gauzek lur jota uzten naute. Dena den, ez du garrantzirik, zuek ez nauzue ezagutzen. Ezta beste inork ere, egia esan. Jendeak laguntzat duen oro ezagutzen duelako uste osoa izaten du. Senetik ateratzen nau horrek.

Gurasoek urtebetze-opari lez bidali zidaten anorak beltza jantzi nuen (hemen ikaragarrizko hotza egiten du neguan), oraindik estreinatzeke bainuen, eta poltsikoan gutunazala eta aspaldian abandonaturik nuen liburu bat sartu bezain laster, kalera atera eta metroranzko bidea hartu nuen. Buelta bat eman eta Azoka Zaharrean jaitsiko nintzela erabaki nuen.

Euria goian-behean hasi zuen atariko atea zabaldu nuen une berean, bat-batean. Nola has daiteke euria hain supituki? Horrek haserretu egingo ninduke normalean, nire anorak berriak ez baitzuen aurpegia estaltzen eta ez dut sudurra busti eta gorriturik izatea jasaten. Baina orduan, gizon bat imajinatu nuen hemendik hurbil dauden milaka baserrietako batean buru-belarri lanean, lehortearen eraginez lurra guztiz hilik zuela eta emankortasuna bere sailetara berriro ekartzeko ahaleginik etsienean aspaldi amerikar indiar horiek euria erakartzeko egiten omen zituzten dantza sakratu horietako bat ikasten eta, ondoren, familia osoaren laguntzaz dantzatzen, zertarako eta ni bezalakook mespretxatuko genukeen euri zaparrada hau lortzeko. Ezin nuen norbaitek hainbeste behar duen zerbait gorrotatu, niri sudurra gorrituko lidakeelako soilik.

Bidean aurrera nindoala, gutun hura nire buru barrutik aldendu besterik ez nuen nahi, behingoz, jaso nuenetik,

bake-bakean pentsatu ahal izateko. Ezinezkoa zirudien, ordea. Sasoi batean pelikula ziztrin horietan hain modan egon ziren boomeran horietako bat zirudien. Zenbat eta indar handiagoz botatzen saiatu, orduan eta indar handiagoz itzuliko zen. Arreta beste zerbaitengan jarri behar nuela ondorioztatu nuen azkenean. Atzera eta aurrera, albo batera eta bestera so egin nuen arren, ez zegoen interesa piztu zidan ezer, asfaltoa, elkarren fotokopiak zirudite eraikin gris itsusiak, eta goraino beteta zaborra lurrera erortzen zitzaion zakarrontzi bat besterik ez. Zinez tristea zen, egia esan. Horregatik dut azoka zaharra hain gustuko. Han etxe bakoitza ezberdina da, balkoi bakoitzeko loreak ezberdinak dira, azokan erosten edo paseatzen dabilen pertsona bakoitzak ezberdina dirudi... Bazegoen, barazki eta erroskilla postuen artean, besteen aldean nabarmentzen zen postu txiki baina koloretsu bat.

Umetan, aiton-amonekin igande goizetan joaten nintzenean, armairuko arropa dotoreenak eta aitonaren txapela janzten nituen. Itzelezko grazia egiten zien hark amonari eta aitonari. Hartan, ordea, ez nuen arrazoia ulertzen eta muturtu egiten nintzaien, baina orduan amonak belarrira esaten zidan iritsi bezain pronto hain gustuko nuen postuan oparitxo bat aurkituko zuela niretzat eta begi keinua egiten zidan, eta nik ere, ahal nuen moduan, keinu egin eta biei eskutik helduta arrapaladan ateratzen nituen etxetik. Ezinegona lagun eramaten nizkien bazkaritarako erosten genituen janari poltsak eurek postu bakoitzeko dendariekin hitz egiten zuten bitartean, nik postu koloretsu bitxi hartara heldu nahi bainuen.

Kontua da postuaren alboan telazko aulki horietako batean eserita neskatila bat egoten zela beti. Jabearen alaba omen zen. Nire adin bertsua izango zuen, baina askoz nagusiagoa zirudien. Benetan. Ni albo batetik bestera korrika eta kolokerian

nenbilen bitartean, edo bere aitaren jostailu bitxiekin txoraturik, bera han egoten zen eserita beti. Jendeari begira egoten zen, pasatzen zen jendeari, bakoitzak buru barruan zerabilena jakingo balu bezala. Pertsonak begiratze soilarekin ezagutzen zituela zirudien. Behin, adibidez, jostailugile jaunak (hala deitzen genion umeok herrian, inoiz ez dut bere benetako izena jakin) motoredun latorrizko auto txiki gorri bat nola egiten zuen ikusten ari nintzela, ni baino gaztetxoagoa izango zen ume bat hurbildu zen, begiratzeko irrikitan hura ere. Ez zen salmahaira iristen, ordea, eta neskatxari laguntza eskatu zion. Honek norabait begiratu eta begirakune ikaragarria bota zion ume gajoari. Harrituta, haurrari laguntzera hurbildu nintzen, baina neskak ezetz egin zidan buruarekin. Nik, dena den, egin egin nuen, ezin bainuen ulertu nola izan zitekeen umetxo hari ez laguntzeko bezain gaiztoa. Besoekin hartu nuen eta salmahaia ikusteko gai izan zenean, eskua luzatu eta ukabil txikian sartu zitzaion guztia poltsikoan sartu eta arrapaladan ihes egin zuen. Atzerago zegoen gizon batekin batu eta korrika alde egin zuten biek. Aho bete hortz utzi ninduen hark. Zoritxarrez, ez zebilen ia inor inguruan, azokaren beste aldeko malabarismo erakustaldian baitzeuden gehienak, aitona eta amona barne. Txundituta uzten ninduen neska hark, beti asmatzen zuen horrelakoetan.

Egun hartan, amonak motoredun latorrizko auto txiki gorria erosi zidan, nire urtebetetze egunerako oso gutxi falta zela eta. Ikaragarri gustatzen zitzaidan autoa eta apal batean jarri nuen ahalik eta gehien ikus zedin, lagun guztiei erakutsi ahal izateko. Begiratzen nion bakoitzean, ordea, era batean edo bestean, umeari neskatxa haren aitari osten lagundu niolako oroitzapena etortzen zitzaidan gogora eta berari barkamena eskatu beharra sentitzen nuen biziki. Handik aurrera joan nintzen bakoitzean, beti egoten zen liburu lodi horietako bat

irakurtzen edo aitari laguntzen edo dena delakoa, baina ez zidan begiratu ere egiten, eta nik ez nuen adorerik beregana hurbiltzeko. Azkenean, onena autoa aitonaren idazmahai zaharreko «konpartimendu sekretuan» gordetzea izango zela pentsatu nuen, nire beste ezkutuko altxortxoekin batera, egunero ikusi beharrik ez izateko. Horrelakoa izan naiz beti, koldarra, eta horrelakoa izango naiz. Onartua daukat dagoeneko. Baina oraindik ere aurpegiratzen diot neure buruari neskatilari edo jostailugile jaunari berari ezer esateko adore izpirik ez izatea.

Eta horrela, zerbaitengatik nire haurtzaroko une gogoangarrienetako bat izan zena gogora ekarri nahian nenbilela, berriro ere biziki triste sentitu nintzen. Lehenagotik Azoka Zaharrera joatea pentsatuta nuen arren, hartarako gogoa desagertu egin zitzaidan bat-batean. Zera, aitona, amona, neska hura... Denak batera gogoratu izanak izugarri gaizki sentiarazi ninduen. Amak ez zidan inoiz azaldu zergatik ez nituen aitona eta amona berriro ikusiko. Ez nion galdetu ere egin, egia esan. Ziurtzat jo nuen «die Wende» zelakoarekin zerikusia zuela, eta nik hartan ez nekien eta ez nuen horri buruz ezer jakin nahi. Hark iraun zuen denboran azoka itxi egin zuten, baina orain irekita zegoen berriro.

Konturatu nintzenerako, metroko sarreran nengoen jadanik. Ez nuen oraindik nora joan erabaki nahi, eta sarrerako espaloi berean zegoen kiosko batera hurbildu nintzen.

– Egun on, Antje.– Esan nion saltzaileari.

Hirurogei bat urte izango zituen gizon hark. Bere munduan bizi dela esan daiteke, baina ondo ezagutuz gero bikaina da, benetan. Ez da denda handietako irribarre faltsu nazkagarria

duten horiek bezalakoa. Atsegin bazaitu, benetan interesa du zugan. Sinistu nahi ez baduzue, jakizue bera izan zela nire liburua argitaratzen lehena. «Egun on, bai» zioela, buelta erdi eman eta ni ikusteak harritu balu bezala agurtu ninduen.

– O, Derek, zu zara eta! –Ulertezina suertatu zitzaidan aurpegiera batez begiratu zidan.– Itxaron.

Eta betaurrekoak jantzi zituen. Inoiz ez dut hain kristal lodidun betaurrekorik ikusi. Ez dakit nola eusten zion horri guztiari zuen sudur txikiaz.

– A bai, zu zara. Gero eta antzekoago ikusten zaituztet denok, aizu. Gaztetxoon moda berri horietako batengatik izango da.

– Ni izan nintzen gaztetxoa. 35 urte ez nituen bete pasa den astean bada!– Tonu ironikoz baina, aldi berean, era atseginean esaten ahalegindu nintzen. – Zer duzu hor? Ez zara arrantzara joatekotan egongo, ezta? Ez al duzu ari duen zaparrada ikusi?

– Joan nahi nuen baina... Ez zait laguna agertu. Aizu, egunkari edo aldizkari hauetakoren batean zuri buruzko zerbait dator. Bilatu egingo dut. Ez nekien etorriko zinenik. Badakizu, zu bezalakoak orain *luxuzko* leku horietara joaten omen dira eta...– Aldizkariaren bila makurtzen zen bitartean esan zuen. Putza! Inoiz ez zait hain desatsegina izan esan didaten ezer. Ez entzunarena egin nuen.

– Noski. Nola espero duzu inork arrantzarako planak bertan behera geratu direla ziurtzat ez jotzea dagoen eguraldiarekin?– Barre egiten saiatu nintzen, baina irribarre egin nuen soilik.

– Begira, hemen da! Banekien nik ez zenidala hutsik egingo, motel!

Zinez diotsuet. Une hartan nahi nuen azkeneko gauza aldizkari zikin horietako artikulu ezin faltsuago bat irakurtzea zen. Niri buruzkoa gainera! Ezingo nuela botaka egin gabe irakurri sinistuta nuen.

– Mila esker, Antje! Benetan! Etxera iritsi bezain pronto irakurriko dut. Bide batez, eguneko egunkari bat ere erosiko dizut, ados?

– Noski!

Prestatzen ari zela «Klasikoak» izenburupean zegoen liburuz betetako apal bati erreparatu nion. Inoiz ikusi gabea nuen horrelako zerbait bere dendan. Berriztatze txikiren bat egin zuela pentsatu nuen, bere emazteak benetan zuen gogoko gizonaren denda bere kapritxoen arabera antolatzea, bere buruari inportantzia emateko edo. Inoiz ez dut jakin nola zuen atsegin horrelako emakumea.

– Zer moduz dago andrea, bada? Ez dut aspaldian hemendik ikusi.– Egun hartan berritsu geunden biok, antza.

– Ondo, ondo. Kanpoan dago, aspaldian ikusi gabeko lagunen bat edo bisitatzera joan da.

– O, pozik egongo da orduan?

– Bai, bai... Ez dago emakume hori ulertuko duen gizasemerik. Zera, egun batean andre hori zein gorrotagarria den esan eta esan dabil, eta hurrengoan bera bisitatzera doa Hannoverreraino. Beno, motel, prest duzu guztia.

– Itxaron, sar iezadazu hau ere.– Liburu klasikoen apaletik «Montecristoko kondea» hartu nuen, eta mahai gainean utzi nion.– Noiztik saltzen dituzu liburu zaharrak?

– Gretaren ideia izan zen. Eta uste duzuna baino probetxu handiagoa ematen dute, aizu. Jendeak nahi ez dituen liburu zaharrak edo klasikoak, edo dena delakoa, ekarri eta erosi egiten ditugu eta guk saldu, ondoren.– Poltsa eman zidan, eta nik dirua trukean.

– Bigarren eskukoak dira, beraz?

– Bai, bai. Horixe bera.

Bueltak jaso eta Antje agurtu nuen. Dendatik irten nintzenerako ateri zen kanpoan eta, nolabait esatearren, alaiago sentitzen nintzenez, Azoka Zaharrerako metroa hartzea erabaki nuen. Eskailerak jaisten ari nintzela, zerbaitekin tupust egin nuen. Kalean egoten ziren eskale horietako baten oinarekin, zehazki. Begira geratu nintzaion une batez. Ez zuen filmetako horiek izaten duten bezalako gaizto itxurarik. Nahiko txukun jantzita zegoen, baina igarri egiten zitzaion eskalea zela. Mantel moduko batez estalita zegoen, lotan. Ezin nion soa gainetik kendu, zerbaitengatik zinez ezaguna egiten zitzaidan, baina ezin nuen nor ote zen gogora ekarri. Zer egin ez nekienez, oraindik eskuan nituen Antjek emandako bueltak sartu nizkion poltsikoan, poliki, esna ez zedin, «Sentitzen dut gehiago egin ezin izana. D. Kähler.» idatzi nuen paper batez bilduta. Ez nuen pentsatu ere egin nahi zer gertatu ote zitzaion gizajoari horrela amaitzeko, ezta mereziko zuen edo ez zuen ere.

Hartu behar nuen metroa iristeko ordu laurden bat falta zela esan zidan txartel-leihatilako gizonak eta beraz, hutsik

zegoen banku batean eseri nintzen. Egia esan, nahi nuen lekuan eser nintekeen egun hartan, huts-hutsik baitzegoen metroa. Aukeratu nuen eserlekuaren parean kartel bat zegoen zutabe batean. «SCORPIONS CRAZY WORLD TOUR BERLIN» zioen. Ez zen beste munduko ezer, baina kartel polit askoa zen eta gutxienez zeri begiratua nuen.

Segituan irakurri nuen kartela eta Antjeren dendan erositakoaren errepaso bat egin nuen, entretenimendua aukeratzeko. Onena egunkariari begirada azkar bat botatzea izango zela pentsatu nuen. Hura hartu eta poltsa bankupean utzi nuen.

Nahikoa izan ziren lehen bi titularrak ni guztiz nazkatzeko. «Ekialdeko Europako gobernu komunistak erori dira.» eta «SESBren azkena heldu da.» Putza! Nahi duzuena pentsatu, baina orduan, besterik gabe eta bat-batean, politikak higuindu egin ninduen betirako. Ez SESBren edo Ekialdeko komunismo haren alde nengoelako, ezta kontra ere. Behin betiko aspertu ninduen kontu hark guztiak. Egunkaria, eskuartean hartu eta ahal izan nuen beste zanpatu nuen, bola bat eginda geratu zen arte. Nire indar guztiez bota nuen erraileta ra iritsiko zen nahiaz, baina ez nuen lortu. Goiz hartan gosaldu ez nuelako izango zen. Egunkaria han geratu zen, *amildegi* ertzean, batzuetan hurbilduz eta urrunduz besteetan. Izugarri deprimitu ninduen horrek.

Poltsa hartu eta liburua ateratzeko asmoa nuen (ez bainuen inola ere aldizkaria irakurtzeko asmorik). Baina oraindik egunkariari begira nengoela erori zen azkenean *amildegian* behera. Poztu egin ninduen behingoz egunkari ziztrin hori garaitu nuela ikusteak. Ez zen bakarrik erori, ordea, norbaitek ostikada eman ziolako baizik. Begirada altxatu nuen nire garaipena norekin partekatu beharko nuen jakin

nahian. Neska bat zen. Benetan neska polita zen. Ez, ordea, harribitxi pisutsuak eta jantzi dotoreak eramaten dituzten horien estiloko polita. Zera, esan nahi dudana da bera zela arreta ematen zuena, ez berak zirudiena.

Gerrirainoko praka bakero ilunak zeramatzan, eta paparra eta sorbalda bistan uzten zizkion kamiseta loreduna. Eskuetan zamarra lodi bat zeraman. Eta nik bere gorpuzkera lirain hartan pentsatzen nuela, nire alboan eseri zen bera. Hasieran ez zuen ezer esan. Ezta nik ere, baina oraindik hor zegoela konturatzeke nengoelako. Hankak astintzen zituen, aurrera eta atzera, umeek egiten zuten bezala. Normalean inozokeria galanta iruditụko zitzaidan, baina ez bere kasuan. Ezberdina zen, benetan. Nora begiratu ez nekiela, Scorpionsen posterra irakurtzen nengoelako itxura egin nuen. Konturatu egin zen.

– Gustatzen al zaizkizu?– Ez zuen ipuinetako printzesa ahots finik, ez. Inoiz entzun dudan ahotsik atseginena zuen, besterik gabe, zintzoa zirudien bere ahotsak. Ez zugandik zerbait nahi dutenean neskek jartzen duten ahots meloso hori, ezta derrigortuta hitz egiten dizula ematen duen ahots amorragarri hori ere.

– Zer?– Pentsamenduetan guztiz murgilduta nengoen, erreakzionatzeko denbora behar izan nuen.-A, hori.– Berari begiratu nion, baina kartelari begira zegoen eta ez zen ohartu.-Bai, tira. Ez nituzke beraien disko guztiak erosi eta altxorra bailiran gordeko, baina ez daude gaizki ere. Zaila da, egia esan, nik ezer altxorra bailitzan gordetzea.

Barre txiki bat egin zuen. Nik guztiz serio esan nuen, baina ondo pentsatuz gero tontakeria izugarria dirudi. Barre egin nuen nik ere.

– Niri gustatzen zaizkit beraiek eta beraien musika. Baina jendeak nola ikusten dituen dut gorroto. Moda kontu hutsa... –Begiak erdi itxi zituen hori esatean.

Isiltasuna nagusitu zen une batez, nik ez bainion erantzun. Ez dakit zergatik ez nuen egin. Scorpionsek batere axolarik ez didalako beharbada edo pentsatzen hasi nintzelako. Pentsatzen hasi nintzen hura bezalako neska batek zer egingo zuen nirea bezalako gutuna jaso izan balu. Ziurrenik, gajo horiek egingo luketen bezala, irribarre zabal bat agertuko zitzaion aurpegian jazo zaidana kontatzean, eta mila aldiz zorionduko ninduke benetan irrika ageriz, nahiz eta barruan bost axola zaien. Edo ez. Ez nekien. Baina ziur beste guztiek egiten zuten bezala, gerta lekidakeen gauzarik onena balitz bezala ikusiko lukeela.

Kontua zen neska hark gainontzekoek ematen ez zidaten zerbait iradokitzen zidala. Eta egin nezakeen zorakeria handiena izanda ere, kontatzea erabaki nuen. Horrela, besterik gabe bota nion.

– Duela urte erdi bat ez nuen ia jateko dirurik, ezin nuen ia etxea ordaindu ere egin. Inoiz ez nau arduratu diruak, ezta egingo ere. Ez nuke dirua lortzearren soilik bizi diren aberats kapitalista horietako bat izan nahi. Baina kontua da bizitzeko zerbait behar dela gaur egun, nahi eta nahi ez. Bada, arrazoi batengatik edo bestearengatik, gutxi gorabehera nire haurtzaroa kontatzen duen liburu bat idazten amaitu nuen. Inork inoiz irakur lezakeen liburu ergelena eta inozoena da, benetan.– Ez nion neskari erreparatu ere egin erretolika hura guztia botatzen nion bitartean. Bankutik altxatu eta joan balitz ez nintzen ohartu ere egingo. Begirada nonbait galdua nuen.– Baina estatubatuar aberats handinahiren bati gustatu

egin zitzaion antza, eta sari bat eman nahi didate bertan. Atzo jaso nuen gutuna.– Geldialdi bat egin nuen, eta neskari begiratu nion. Hark ere begirada galdua zuen, baina entzuten ari zela zirudien. Harrituta nengoen benetan, baina ez nuen gelditu nahi. Gozamen hutsa da norbaitek entzuten dizula sentitzea, benetan.– Ez dut Estatu Batuetako etxe erraldoi dotore horietako batean amaitu nahi, gorroto ditudan liburu ergelak idazten jende oraindik ergelagoak bikainak direla esateko, liburua ulertu ere egin ez dutenean, eta liburu bakoitzeko dirutza kobratuz.

Dena bota nuen jarraian, sariarena esan bezain pronto zorionak ematen has ez zedin. Egia esan, ez nuen erantzunik espero ere. Dena esan nahi nuen, besterik ez. Begiratu egin nion. Anorakeko poltsikotik eskutitza atera eta zortzi zati txikitan apurtu nuen, zatiak banan-banan lurrera erortzen utziz. Berak zamarra barrutik aldizkari bat atera zuen. Segituan ezagutu nuen. Niri buruzko artikulua ageri zen orrialdea erauzi eta hura ere zati txikitan apurtu eta bota egin zuen.

Orduan nik, besterik gabe, barre egin nuen. Barre-algaraka hasi nintzen ia. Berdin egin zuen berak. Benetan, ez dut uste inoiz hain gauza arrarorik gertatu zaidanik. Beste edozeinek zorionak eman eta aurpegi arraroz begiratuko zidan, hori berari zergatik kontatu diodan ulertu ezinik, baina berak ez.

Nik pentsatzen eta irribarrez niharduela, metroa estazioan gelditu zen. Ikaragarrizko jende andana jaitsi zen bertatik. Konturatu nintzenerako jendez inguratuta nengoen eta ez nuen ezer ikusterik. Galduta, poltsa jaso eta metroak alde egin baino lehen, bagoi batean sartu nintzen. Leiho ondoan eseri nintzen. Ez nekien nola ez nuen neska agurtu gutxienez, edo bere izena galdetu.

Bagoia «ikuskatzeko» gogoa izan nuen orduan. Ia hutsik zihoan, jendea bertan gelditu baitzen. Neska ez zen bagoi hartan sartu antza. Nire ezkerraldean gizon bat zihoan lotan, pare-parean metroan bakarrik joateko gazteegia iruditu zitzaidan mutil bat eta eskuinerago emakume bat. Ez duzue sinistuko zer zuen emakumeak eskuetan. Ikaragarri sumindu ninduen, benetan. Emakume hark ez zekien zeri buruz ari nintzen ere liburu hori idatzi nuenean. Ziur aski bere lagunen batek aldizkari zikin hartako artikulua irakurriko zuen eta bere buruari jakintsu eta adimentsu aireak emateko liburua irakurri eta zeinen ona irudiko zaion esango zien, eta honek gutxiago ezin izan eta berak ere irakurtzea erabakiko zuen. Benetan, hori pentsatu hutsak izugarri deprimitu ninduen. Dena den, ez nuen emakume hari ezer esateko adorerik izan.

Berriro begiratu nion lo seko zegoen gizonari. Gorpuzkera sendoa eta kailuz eta babaz betetako eskuak ikusita, noizean behin nire etxe ondoko eraikin zaharrak konpondu edo berreraiki nahian ibiltzen ziren langile horietako bat zirudien. Ondo erreparatuz gero, ordea, ile zuria, betaurrekoak, jakako ukondoak eta oin artean zeraman larruzko maletina ikusita, irakasle tankera osoa zuen. Bereganako mespretxu izugarria sentitu nuen bat-batean. Tira, ez iezadazue gaizki ulertu. Irakasleen kontra ez dut ezer. Are gehiago, estimu handia diet. Benetan. Baina irakasle on eta aplikatuak diren horiei soilik. Gizon hori une hartan ikasleen azterketak zuzentzen, ariketaren bat prestatzen edo dagokion ikasgaiko liburua irakurtzen egon izan balitz, horrek ziurrenik, miresmen handia emango zidan. Baina, horren ordez, lo seko zegoen maletina lurrean botata. Horregatik bereganako mespretxu hori. Beharbada gizon gajoa ez zen irakaslea ere. Beharbada dotore janztea atsegin zuen eta obratik leher eginda zetorren langilea zen. Auskalo. Baina ezin izan nion mespretxuari itzuri egin.

Ez nuen buruari buelta gehiago emateko gogorik, ezta indarrik ere. Antjeren dendan erositako liburua irakurtzen hastea bururatu zitzaidan beraz, apur batean distraitzeko-edo. Segituan aspertu ninduen, ordea. Badakizue nolakoak diren delako liburu klasiko horiek. Zinez onak izango dira, bai, baina askotan hori baieztatzeko aukera izan aurretik loak hartu zaitu dagoeneko. Liburua oraindik eskuetan nuela, hasierako orrialdeei begiratu bat eman nien, edizio data eta horrelakoak agertzen diren orri horiei. Espero nuen bezala, ez zegoen liburuari buruzko datu interesgarri edo horrelakorik. Zinez diotsuet liburuetako lehen orrialde horietako hutsune guztietan honi buruzko interesgarria den zerbait idatziko balute (bitxikeriaren bat edo, edo autorearen honi buruzko hitz esanguratsuren bat), gehiagotan erosiko nituzkeela liburutegian hartu edo norbaiti eskatu beharrean.

Kontua da hasierako orrialde horien atzean, erdi ezabatuta egon arren, zera irakur zitekeela:

*«Askatasuna ken diezagukete, ondo dakizu. Nik jakinduria eskaintzen dizut. Ikasi dudan guztia.»*

*Adelia, zuretzat, bihotz-bihotzez, nire oroigarri, betiko gorde dezazun.*

*Zurea betiko, Ernest.*

Putza. Ezerk ezin ninduen gehiago deprimitu une hartan. Gizon gizajoa imajinatu nuen, gerrara edo dena delakora joan behar zuelako bere neska gehiago ikusiko ez zuelakoan bien liburu gustukoeneko esaldi gustukoena aukeratzen, eta neskarentzako hitz ederrenak bilatu nahian, ondoren kaligrafia finenaz paperean idazten. Hari malko bat eroriko zitzaion paperean, eta zin egingo zion betirako gordeko zuela. Urte

gutxiren buruan, *Adelia*ren familia hain txiro izango zen non bere altxor preziatuena zen hura saldu beharko zuen aurrera atera nahi bazuen. Putza. Zenbat gaitz eragiten dituen ditxosozko diruak! (eta gehiegizko irudimenak ere bai, batzuetan.). Izugarri deprimitu nintzen, benetan.

Erreflexio hori izango zen beharbada, edo aurretik pentsatuta nuen guztia. Baina orduantxe erabaki nuen, behinbetiko, benetan egin behar nuena. Nik ez nituen, inola ere, *Adelia*k egin zuen bezala, nire usteak harrika botako eta ez nuen kapitalaren menpe utziko neure burua. Ez. Pobre bizi izango banintzen ere, harrotasunez bizi izango nintzen.

Ustekabeko irribarre bat atera zitzaidan orduan. Dantzan hasteko gogoa nuen, benetan. Ahaztu egin nituen, besterik gabe, ordura arteko pena guztiak, egindakoaren damuak, eta izandakoaren gaitzespenak, argi baineukan ordutik aurrera egingo nuena, izango nintzena.

Metroa eta ateak ireki bezain laster, salto batez egin nuen jauzi eserlekutik eta korrika abiatu nintzen eskaileretan gora, berriro kalera irtetean, berriro eguzki printza apurrek nire gorputza jotzean, ikusten nuen lehen gauza Azoka Zaharra izan zedin. Benetan atsegin nuen lekua bazen munduan, Azoka Zaharra.

Itsu-itsuan kalera irten eta begiak zabaldu nituen. Indarrez, ilusioz. Lehenengoz nengoen bertan, berriro ireki zutenetik.

Neure burua armairuko arropa dotoreenak eta aitonaren txapela buruan nuela ikusten nuen. Korrika, koloreetako postu hartara iritsi nahi nuen. Ustekabean, hankak mugitzen hasi zitzaizkidan. Haizeak aurpegiaren kontra begiak ixten

zizkidan, eta nekez ikusten nuen postua nigandik gero eta hurbilago. Han zegoen beti masailak gorrituta uzten zizkidan barazki-saltzailea, baita noizean behin begi-keinu egin eta aitona eta amonarengandik ezkutuan txokolatezko bolatxoak ematen zizkidan agurea.

Baina, postuaren parera heldu nintzenerako, praka bakero zarpailak eta gurasoek oparitutako anorak hura neraman berriro soinean.

Umeak zebiltzan inguruan, gurasoen arropetan eskegita latorrizko jostailu polit horietako baten eskean. Igandea zela eta, gehienek eman zuten amore haurren insistentziaren aurrean. Umetxo txiki bat zegoen, baina salmahaira iritsi ere egiten ez zena, bakarrik. Gehiago hurbildu nintzen. Bertan nengoela, ume hark dendariari dei egin zion eta buelta eman zuen honek. Ezagun nituen hark zeramatzan gerrirainoko bakeroak eta paparra bistan uzten zion kamiseta loreduna, olioz zikindutako amantalak estali arren.

Haurrak, orduan, txanpon batzuk atera zituen poltsikotik, baina ez zen nahikoa, antza. Neskak triste begiratu zion, berak ezer egin ezin ez balu bezala, salmahaian ez baitzitzaion jada jostailurik gelditzen. Zerbaitengatik, oraingoan gauzak ondo egin eta aurrekoarengatik konpentsatu behar nion. Derrigorrez. Konturatu ere egin gabe anorak berri hartako patrikan sartu nituen eskuak, ez nuen ezer aurkitzerik ere espero. Baina ustekabean zerbait nabaritu nuen, paper moduko batekin zetorren zerbait. Poliki atera nuen poltsikotik. Nire txikitako latorrizko auto gorri txikiari itsatsita zegoen papera, zera zioena: «Aitona-amonen etxean izan gara eta hau eman digute. Ikusteak ilusioa egingo dizulakoan gaude. Zorionak bihotzez. Aita eta ama.» Masailean behera malko

bat erori behar zitzaidala nabaritzen nuen, baina eutsi egin nion.

Zertan nenbilen pentsatu ere egin gabe, makurtu eta eskuan nuen latorrizko auto txiki gorria luzatu nion haurrari. Zur eta lur begiratu zidan, eta begi-keinu egin nion nik trukean. Goxotasunez hartu zidan eskutik, eta txintik esan gabe abiatu zen jolastera.

# Botetako sugandilak

Lurdes Ondaro Mallea
Gernika institutua
Gernika-Lumo

*«Ez zarete umeak jada, eta gizonen moduan portatu behar zarete»* zioen Bassirouk gure aurrean oinez, lehenengo eskuinera tipi-tapa, tipi-tapa, filaren muturrera heltzean orpoen gainean buelta erdia eman eta ezkerrera tipi-tapa, tipi-tapa. *«Gizonek ez dute negarrik egiten, gizonak ez dira emakumeen antzera negarti hutsak. Eta garrantzitsuena, gizonek ez dute gupidarik.»* Tipi-tapa, tipi-tapa. *«Gizonek borroka egiten dute. Gerlariak dira, odolzaleak.»* Tipi-tapa, tipi-tapa.

Azkenean ibiltzeari utzi zion, eta nire parean geratu zen. Lasaitasunez, gozatzen ari balitz bezala, 10 bat segundo hartu zituen ni aztertzeko. Goitik behera eta behetik gora miatu ninduen. Ondoren, irribarre. *«Soldadu, etorri nire ondora.»* Arnasa sakon hartu, eta bere ondora joan nintzen. Handik, nire kideak ikus nitzakeen. Haien aurpegiak ez ziren batere gozoak. Begiradei eutsi ezinik, lurrean iltzatu nituen begiak. Sugandila bat zebilen gure hanken inguruan. *«Soldadu, aukeratu bat eta tiro egiozu.»* Orduan indar guztiz begiak itxi nituen, horrela amesgaiztotik esnatuko nintzelakoan. *«Zer esan dizut? Ez duzu gogoratzen? Edo ez duzu entzun? Ba nik esango dizut: tiro egiteko! Bigarren aukera duzu, ostantzean, neuk egingo dizut zeuri tiro, aditu? Badakizu zer egin behar duzun.»* Lepoan neraman erriflea hartu, eta tiro

egin nuen, nori begiratu gabe, begiak lurretik altxatu gabe. Berehala, gorpu baten hotsa lurrera erortzean. Tiro hotsak edo gorpuaren zaratak beldurtuta, sugandila ihesi zihoan.

10 urte inguru izango nituen orduan.

Gau hartan bertan egin nuen ihes. Denak lokartu zirenean, ilunpetan motxila egin (beharrezko gauzak bakarrik hartuz) eta isil-isilik irten nintzen. Oihuka irten banintz ere ez zatekeen inor konturatuko denak drogatuta zeuden eta, baina senak isilik ibiltzeko esaten zidan.

Gauero, entrenamendu eta misioak burutu ondoren edaria eta drogak ematen zizkiguten. *«Gizonak, euren eguneroko lanak amaitu ostean, honela dibertitzen dira.»* Eta bakarrik uzten gintuzten.

Kanpamenduaren amaieran basoa hasten zen. Ez nuen dudarik egin eta zuzenean sartu nintzen. Gure entrenamenduetako bat basoan ibili eta orientatzea zen, inolako arrastorik utzi gabe. Eguneroko lana zen hura, beraz goiza heldu orduko handik urrun egon beharra neukan.

Egia esan, zorteko nengoen, ilargi betea ageri zen-eta zeruan, ibilaldia asko erraztu zidalarik. Hala ere, piztiekin kontuz ibili behar nintzen. Behin entrenamenduetako batean, ni eta Ketu, nire lagunik onena, taldetik aldendu eta galdu egin ginen. Onena kanpamendura itzultzea izango zela pentsatu genuen. Hala ba, gelditu eta zuhaitzei entzun genien. Zuhaitzek hitz egiten baitute entzuten jakinez gero. Ondoren, buelta hartu eta kanpamendurantz abiatu ginen. Bidean, begi horidun piztia handi batek ikusi gintuen eta atzetik etorri zitzaigun. Orduan, errifleak generamatzanez, tiro egin genion eta seko hilda geratu zen. Tiroen zaratak erakarrita edo,

taldekideak etorri eta eurekin itzuli ginen kanpamendura. Astebetez egon ginen zigortuta, sukaldean laguntzen.

Baina nik orduko hartan ez nuen lagunik ez erriflerik alboan, eta gaua zen. Beraz, oso kontuz ibili beharra nuen adaxka edo hosto iharturen bat ez zapaldu edo lur mugikorretan ez jausteko. Bestela, nireak egin zuen.

Argitu zuen egunak eta itzuli zen ilargia berriro ere. Ziur nengoen bide onetik nindoala, baina egunak joan egunak etorri gizakiaren arrasto txikiena ez ikustean, arduratzen hasi nintzen. Gutxi ez balitz, jana eta edana agortzear neuzkan, eta nekea egunetik egunera gero eta handiagoa zen.

Halako batean, hogeita zazpi ilargi eta beste horrenbeste eguzkiren ostean, kea sumatu nuen urrunean. Gure herrixka izan zitekeela eta, barrutik indarrak atera eta aurrera egin nuen abiada betean.

Heldu nintzen azkenean. Gure herrixka zen hain justu. Haatik, han ez zen egun batean gertatu zenaren arrastorik nabari.

Egun madarikatu hartan oskarbi jalgi zen eguna. Mutikoak herrixkaren erdigunean, plaza antzeko batean bilduta geunden, ahuntzak zaintzera larreetara joateko. Halako batean, kamioi bat heldu zen herrixkara soldaduz beteta. Egin zuten lehen gauza agure bati tiroa bota eta *«Beste horren moduan amaitu nahi ez baduzue, hobe duzue gure aginduak betetzea»* esatea izan zen, mehatxuka. Beste guztia oso bizkor pasa zen: mutikook kamioira sartu gintuzten, eta beste guztiak bertan utzi. Kamioitik, atzera ere mehatxuka hasi ziren, ume gehiago nahi zituztela esanez, itzuliko zirela beste batzuen bila.

Baina hura antzinako kontua zen herrixkan. Umeak olgetan zebiltzan herrian zehar, eta mutiko batzuk koxkortzen hasiak ziren jada. Berriz soldaduak laster agertuko ziren seinale.

Etxerantz abiatu nintzen. Heltzean ikusi nuena ez nuen inondik inora espero: han ez zen inor. Ez zegoen inor, hutsik zegoen, eta denbora luzean egona zen horrela, guztia hauts geruza lodi batek estaltzen zuen eta. Ez dakit zer gertatu zen orduan, baina urte guzti haietan malko bat isuri gabe, negarrez hasi nintzen. Lehenengo malkoa astiro-astiro jaitsi zen masailean behera. Malko honi beste batek jarraitu zion, eta beste batek, eta beste batek. Bost ozeanoak barruan nituela zirudien, kanpora irten nahian. Halako batean negar anpulu artean sugandila bat ikusi nuen, eta beste ezer hoberik gabe, bere atzetik abiatu nintzen.

Sugandilak herrixkaren kanpoalderantz gidatu ninduen. Nola ahaztu ote nuen! Kine atsoa beti egon zen han eta beti egongo zen. Sartu bezain laster igarri zidan nor nintzen eta besarkada luze bat eman zidan, bere kontra estutuz. Segituan, ohi zuen moduan hizketari eman zion. *«Erasoan ez zituzten mutikoak bakarrik eraman. Zuek joan ondoren, beste kamioi bat azaldu zen, eta herriko emakume guztiak errenkadan jartzeko agindua eman zuten. Handik, ederrenak aukeratu eta beraiekin eraman zituzten. Zure ama ere tartean zegoen. Soldaduek erabakiaren berri ematean, zure aita gainera oldartu zitzaien eta bertan akabatu zuten.»*

Kineri eskerrak eman eta alde egin nuen. Ez nuen herrixka hartaz ezer jakin nahi. Kanpamenduan egin ohi genuen lez, misio bat ezarri nion neure buruari: ama aurkitzea. Nik ihes egin banuen militarren eskuetatik, berak ere egin zezakeen. Eta bere bila abiatu nintzen, noraezean. Oraindik hala nabil, sugandilen antzera, noraezean.

# Beranduegi, kabroia!

Maddi Mendibil Artetxe
Elgoibar ikastola
Elgoibar

Bakarrik gelditu gara, iluntasunaren erdian bakar-bakarrik. Taisek nire sorbalda gainean pausatu du burua, malkoak narruzko txamarra gainera isuriz. Hotza nabari da bion aurpegietan. Sentsazio arraroa da bizitzaren eta heriotzaren arteko mugan aurkitzea.

Aurrean, marmol zati bat. Bertan markatuta izen bat eta bi data, Xabiren bizitza laburtzen dutenak.

Xabier Lizarralde Mendizabal

1979ko azaroak 17 – 2012ko otsailak 23

Goitik behera beltzez jantzita eta inoiz baino ilunago dago Tais. Karminez gorrituriko ezpainak hasperen luze baten ostean dardarka mugitu dira, bien artean listuzko hari mehea erakutsiz. Beldurra nabari zaio ahotsean, beldurra eta damua.

– Danon artian hil dogu.

– Ez, bildurrak hil dau! Koldar bat izatiak hil dau!

Karmin gorriaren zaporea eta kanposantuko bakardadearen eta arrosa gorrien usaina nahastu zaizkit barnean, Taisen musu beroa jaso dudanean.

Bagoaz, lokatz arteko bidean zehar, atzean lagun bat utzita, ezezagunez inguraturiko lagun bat utzita. Farola txiki batek argitzen du hilerri osoa eta farola txiki horren argitasuna ere, hemengo guztia bezala, iluna delakoan nago. Kilkerrek ere ez dute zaratarik egiten, ez dakit, errespetua edo beldurragatik izango den, baina hemen, inoiz isiltzen ez direnak ere, isilik daude; hemen, inoiz ezkutatzen ez direnak ere, ezkutaturik ageri dira.

Kotxe gorriaren atzealdean sartu gara biok, ez batak ez besteak handik joateko asmorik ez dugula ikusirik. Ezer esan gabe, elkar ferekatzen hasi gara. Inoiz baino hotzago egin zaidan egun honetan, Taisen musuak inoiz baino beroagoak iruditzen zaizkit. Bere gonako kremailera askatzearen ondorioz hasi dira autoko leihoak lurruntzen. Gure mugimenduak gero eta bortitzagoak, gero eta goxoagoak bihurtuz doaz, elkar ase dugun arte. Baina orain ere, gozamenak pentsatzeko momentu solteak utzi dizkidan horietan, Xabiren aurpegia burutik kendu ezinik ibili naiz. Eta zer da orain tokatzen dena? Etxera joan behar al dugu, ala hemen gelditu? Badakit hemen gelditzeak ez duela ezer aldatuko, baina etxera joaterakoan benetan hau dena amets gaizto bat izan beharrean egia dela konturatuko naizela pentsatzeak beldurtu egiten nau; hemen, aldiz, Taisen bultzada batekin esnatu eta izerdi tantak lehortu ostean, bira eman eta berriz ere lo hartuko dudalakoan nago, oraindik ere.

Euria, autora sartu garenean baino gogorrago oraindik, eta hilerrian, Xabi. Bere ezkutuko frustrazioarekin. Nire betiko laguna, nire parrandetako kidea, ezer esan gabe, nola zegoen jakin nezakeena... Tais ezagutu arte, behintzat. Oraindik bere musuak nabari ditudala, Xabirekin izandako azken elkarrizketaz gogoratu naiz.

– Neskia topau biha dozu!

– Neskia, nik? Inok ez nau maitxe. Jejeje…

– Gizurra, ahalegintzen ez zaralako da hori.

Barrezka amaitu genuen biok eta ni ohartu ere ez nintzen egin, barre horren atzean, bere eta bere inguruko denon bizitzak aldatuko zituen sexu-beharra zegoela. Ez dakit sexu-beharra edo maitasun-beharra deitu; berarekin hitz egin aurretik ez nukeen pentsatu ere egingo alde batera utzia nuenik, bakarrik sentitzen zenik; baina argi dago, gauzak ez zirela nik ikusten nituen modukoak. Ziria sartu zigun.

Hamar minutu hauetan bizi izandako euforia pasatuta, berriz ere negarrari eman dio Taisek, bere burua nire magalean pausatu eta biok, isiltasunean, malko artean bildu gara.

Burua leihoan jarri eta nire lagunaren hilarrira gizon bat hurbildu dela ikus dezaket. Nor den jakin gabe, Taisi, Xabiren ezkutuko istorioa kontatu ala ez pentsatzeari ekin diot. Ez dut uste Xabik berak kontatzea nahiko lukeenik, baina nola gorde daiteke horrelako gauza bat barruan, inori ezer kontatu gabe? Horixe bera egin zuen Xabik, eta ez zuen, ez, ongi amaitu.

– Zinera bakarrik jun zarala? Zeatik? Zeatik ez diazu deitxu? Buelta bat eman ostian, bixok batera jungo ginaken!

– Taisekin etxian egongo zinala pentsau dot, eta bueno…

Zineman, filmari kasu gehiegirik egiten ez zion bikote bat, linterna eskuan hartuta alde batera eta bestera ibili ohi

den betiko gizona eta Xabi besterik ez ziren egon, filma hasi eta hamar bat minutura atea ireki eta bertan zeudenei begiratu eta linternadun gizonaren errieta entzun ondoren, Xabiren alboko eserlekuan jartzea erabaki zuen gizona sartu zen arte.

Hau kontatzen zidan bitartean ezin nezakeen imajinatu ere egin, bizitza alde batera uzteko prest zegoenik.

– Ulertizu, Martin, lehen egun danak kristonak zian! Goizero jaiki eta ez naban pentsau ere eitxen zeini hots ein, konturatu ere ein gabe deitzen nizun! Oin, aldiz, zu Taisekin zaude, eta ni… ni bakarrik, baina alde haundi batekin; lehen, bizitzan aurrian nenguan bakarrik, oin, aldiz, heriotzan aurrian.

– Nun zaude?? Xabi, esan nun zauden, ostia!! Ez ein zorakerixarik!

– Entzun iazu.

Pelikulan zehar, gizon hura, Xabiri hanka laztantzen hasi zen. Hasieran ez zitzaion gustatu, eta gogor heldurik, azkar kendu zion eskua gainetik. Besteak segi egin zuen hala eta guztiz eta, azkenean, orain arte aurkitu ez zuen maitasuna aurkituko zuelakoan edo, Xabik ere jarraitzea erabaki zuen. Horrela pasatu zuten biek, pelikulari kasurik ere egin gabe, honek irauten zuen ordu eta erdi osoa bataren eta bestearen izterrak, eta izterrak ez zirenak laztanduz.

– Pelikulia amaitxu zanian, berakin juteko eskatu zian, eta holan ein naban nik, itsu-itsu atzetik segi nion, ezautu ere eitxen ez naban gizon hari.

Taberna batera joan zirela kontatzen jarraitu zuen, eta Bittor izena zuela gizon hark. Tabernatik irten ostean, Bittorren etxera joan omen ziren biak, eta bertan, Xabik, aspalditik bila zebilena topatu zuela.

– Ba bai, eta gustau egin zitzatan! Inoiz esperoko ez neukena! Ni, marikoia!

Taisek, malkoak eskuaz lehortu, eta maite nauela esan dit. Eta inoiz baino konbentzituago, gainera. Errimelez zikinduriko bere masailei begira tontoturik gelditu naiz momentu batez, baina berriz ere, gai berdina etorri zait burura.

Xabiren hilerrira gerturatua zen gizonak hantxe jarraitzen zuen, geldi.

– Sei hilabetian gorde dot hau ezkutuan, Martin. Sei hilabetian, antzerkira edo kalian buelta bat ematera ninduala esan dizuedan bitxartean Bittorrekin egon naiz. Eztizut ezetzik esango, zuekin geratzen naizen danetan primeran pasatzen dot, baina diferentia da. Amak aginduta anai txikixa bere lagunekin eruan bihar izaten daben anaixak zarate zuek, eta ni, berriz, eskutik heldu eta anaixan laguneana ixilik ailatzen dan umia. Badakitx, gauzak holan eztiala esango diazula, eta argi esatia nahi dizut, oin esan doten honekin ez dotela nahi zueri kulparik botatzerik, edo gaizki sentiarazterik. Baina holan sentitzen naiz.

– Atzo bere pisura gerturatu nitzan, sorpresa bat emateko asmuakin. Baina ez zauan inor. Parekua ere jo naban, baten bati hara agertu nitzala esateko abixua emateko asmotan, baina atera neska beltzaran bat irten zanian, han parian, bera

hor dauanetik inor ez dala bizi esan zian. Ez zan han bizi, ez, gizurra esan zian. Berriz ere, bakarrik geratu nitzan.

Ez dakit nola, eta seguruenik horrela izan ez balitz hobe izango balitzateke ere, lortu zuen Bittorren benetako helbidea.

– Etxeko tinbria jo, eta besuetan urtebete inguruko ume bat zaukan emakume batek zabaldu ditx, Martin. Eta horren ostian, beste bi etorri dia, batak bestiari hiletik tira eitxen zion bitxartian, aman hanka ingurutik, hango panoramia ikustera. Eta galdetu ein diot gainera, inuzente arpegixakin:

Bittor etxean zen galdetu eta ezetz erantzun zion emakume hark, etxean ez zela eta ea zerbait esatea nahi zuen.

– Eta ezer erantzun bae, jun ein naiz, atzera begiratu eta bi umien buruak atetik kanpora, neri begira ikusten nitxun bitxartian.

Andrea eta hiru ume!

– Trankildu zaitxe, Martin, eta esan iazu nun zauden.

Handik irten, eta bere etxe parean kartel gorriz beterik ageri den putetxera joatea erabaki zuen. Nolabait, barruan nabari zuen hutsune hura betetzera edo. Hara sartu eta neska gazte haiek guztiak, beregana hurbiltzen ikusi zituenean, mundua behera etorri zitzaion, baina hala ere, haietako bati eskutik heldu eta gela ilun batera joan ziren biak.

– Inoiz euki doten orgasmorik hotzena izan da. Eskutik heldu eta lelengo pisura eruan nau eta gelara sartu garanerako, kamisetia kendu ditx, bere atzazkal gorrixekin lepoko botoiak

soltau ditxun bitxartian. Prakak, nik neuk kendu ditxut, eta gorputz osua musukau ostian, kantzontziluak kendu diadazenian, bakardadiak barrutik zelan jaten ninduan igarri dot. Amorruak disfrutatzen ere ez ditx laga. Eta hasieran suposau doten moduan, sartzerakuan baino ondiok hutsau erten naiz.

– Zertan pentsatzen zabiz?– esan dit Taisek, berriz ere euriaren zarataz lagundurik.

Handik hiru egunera aurkitu genuen Xabi, herri gaineko mendi batean, bizitzari aurre egiteko falta izan zitzaion ausardia bere zainak ebakitzeko erabilita.

– Zein ote da gizon hau? Ezautzen dozu? Xabin senitartekoren bat da?

Auto paretik eskuan zineko sarrera bat zuen gizon bat pasatu da. Xabiren hilarrian ikusi dugun bera. Pentsatu ere egin gabe, atea ireki eta beragana joan naiz, jertse grisetik heldu eta nire indar, nire amorru guztiarekin bultzakada bat eman diot. Ez dakit hau dena bere errua izan delako, edo barrenean honen guztiaren erruduna ni naizela dakidalako, eta pisu hori, nolabait, gainetik kentzearren.

– Beranduegi, kabroia!

# Zeru goibeleko egunetan

Maider Zabala Segurola
Ondarroa institutua
Ondarroa

*Bihotz arrotzetatik erbesteratuei.*

Ortzikara da zerua udaberriko egun honetan. Emakumeak leihotik so egiten dio. Malkoek masail tximurtuetan behera bilatzen dute bidea, baina dagoeneko badira uharrak Margariren aurpegian, negarrak egunerokotasunean eserlekua hartu baitu. Atzeko besaulkian eserita badu Angel, bere gizona. Baina badaki jada ez dela gizon, eta ez dela sekula izan bere bihotzak agintzen zion gizona. Angel badago, geldi, begirada etxe barrenean galduta, baina Margarik badaki aspaldi joan zela. Angelen arima gutxika batzen joan dela zeru haserrera iraganean eraman zuten Sabinekin. Eta egunak aurrera doaz, eta Angel badoa, eta zerua Margariren ezkon egunean bezain goibel, Sabinen erailketarenean bezain ilun. Zer arraio! Eguzki makal berak argitu zituen momentu biak eta. Berrogeita hamahiru urteren ostean, badoaz nigar malkoekin Margariren oroitzapenak. Ortzi tristean begiak iltzaturik, 1937ko apirilaren 25era bidaiatzen du.

Ez zion inporta giro goibelak bikote gernikarrari, iritsi baitzen egun handia. 19 urte besterik ez zituen ilusioz beterik gizonari heltzen zion neskak. Eta horrela zihoazen, pozarren, Margarita Gojenola eta Sabin Beitia ermitarako bidean, nahiz eta jakin estatuaren egoera goria zela eta, zeremoniara familia

hurbilena azalduko zela soilik. Ordubete. Ordubetez heldu ziren eskutik urduri, arrak trukatu eta elizaren onespenaz gizon-emazte bihurtu zituen muxu bukaezina eman arte. Baziren «din»ak, baita «dan»ak eta «don»ak ere, kanpaiak finean ekiten zioten lanari. Margariren besoak senarraren gerria oratzen, eta Sabinen eskuak emaztearen adats beltzaranetan nahasiak, burua sostengatuz, bien ezpainak zukutuz zoriontasunari diosala adeitsua egiteko.

Kuxina du eskuetan, eta gogor estutzen du. Begiak, umelak, zarratuta daude. Burua leiho lausotuan pausatu du, bekokia eta ile urdintsuak freskatuz. Maite zuen Margarik Sabinen begirada berbatsua, maite du oraindino. Baina Angelen irribarreak, ele eder barik limurtzen zuenak, lehendabiziko senarraren ausentzia bete lako zerbait egin zuen, haur mainatiari galtza urratuetan txaplata jartzean legetxe. Baina bigarren aldiz irakatsi dio bizitza maistrak emakumeari zoriontasuna ilusio hutsa dela. Betirako? Ez, ez. Errusiar mendiak beherengo solairuan gelditzen dira.

Gernikan bertantxe iragan zuten eztei gau entzutetsua, Oviedora zuzenduta zegoen ezkon bidaia bertan behera utzi eta biharamunean Bilbora joanen baitziren biak, bikotea eta maitasuna. Tabako usaina aise egin zen «Euzkadi» hoteleko gelaren jabe. Ohean etzanda, neska beltzarana eta begirada berba-lapikodun gizona, amodioa egin osteko zigarroa erretzen. Ordu biak, hirurak, lauak, ez zegoen ordu txiki ez handirik. Itxi ote ziren begiak, azaldu al zen loa gau hartan? Ezin jakin zehazki, ametsak egunez betetzen hasiak baitziren.

Sekula baino ozenago jo zuen iratzargailuak udaberriko 26 hartan. Eltxo-burrunba ozena zetorren leihotik. Gero garrasiak, eta zera izugarri haiek. Jauzi batez agondu ziren

biak, eta zer jazotzen ari zen jakin gabe arineketan harrerarantz zuzendu ziren. Margari oilanda sentitzen zen, oilarra izua zen oilategi hartan. Bere oilaskoaren eskua heldu zuen, izerditua, laberako bidean ote zeuden? Nonbaiten bazen ahots sendo bat, baretasuna erein nahian gerra zelai hartan: «Eraikina utzi beharra dago, hau ez da leku segurua. Faborez, lasaitu eta segi kanpora. Jarri zuen buruak salbu.» Baina bikote errebeldea errealitate gordinaren larritasunaz jabetu ez eta zergatik jakin gabe, hoteleko korridorean barrena alde egin zuten, kea langarra zelakoan edo zerua aurkituko zutelakoan.

Ate hura gurutzatu eta sukaldearekin jotzean jaso zuten lehen lasaitasun izpia. Armairu eta tramankuluen atzean, altzairuzko horma bat begiztatu zuten. Sabinek indar guztiaz tiratu zuen hura ireki zedin, eta lortzean barrutik irtendako freskotasun garbia kanpoko bero jasangaitzarekin nahasi zen. Agudo, bikotea, ordurako nekez josia eta izuak janda, patata eta kontserba artean lekua egin eta oheko arropak soinean, despentsan gotortu zen. Baina bikotekideek oraindino ez zuten zoriaren krudeltasunaren berri. Hotz egiten zuen jakitoki erraldoiaren barnean, beraz gogoz oratu beharra zuten arra jarri berriak zituzten eskuek, sentimenduak izoztea gura ez bazuten. Eta halako momentuan, hatzak more eta masail bueltak gorri kolorea hartua zutenean, heldu zen. Argiak mus-partida izango balitz legetxe hasi ziren keinuka, hormak dar-dar bizian eta bi gerra ontzik elkar jo izan balute antzeko danbada. Ezustea, izua, galderak, ikara, sentimendu arrotzak batu ziren behatz txikietan lasterketa baten goranzko bidea egiteko, eta sekula sentitu gabea zuten kili-kili beldurgarri eta latzena jabetu zen euren gorputzez. Segundoak edo argi urteak, ezinezkoa kamara barruan zenbat denbora iragan zuten jakitea, lurrikara ttipi hark goiko apal batean kokatzen ziren laten erorketa eragin baitzuen, lagunak konorte gabe utziz.

Pausu sendoak pum-pum-pum entzuten ziren itoginen artean, baita murmurioa nonbait ere. Urrunean, sirena hotsa. Gelaxka goibela argitu zen atea irekitzean.

Ataritik datorren giltza hotsak iratzarri du Margari eguneko ametsetik. Esku ahurrarekin aurpegia lehortu eta hankak luzatuz tentetu da, badaki Angelek egingo ez duela eta. Korridorera zuzentzean Estellekin tupust egin du. Egunonak jaso ditu ahoskera arrotz hartan, eta arestian aginduriko mandatuak entregatu dizkio neskak. 50, 47 bat urte izango dituela uste du, baina sekula galdera egin ez dionez ezin jakin. Ez daki asko etorkinari buruz, ez baita gehiegi mintzatzen, lanean serio jarduten du, nahikoa eta lar. Jaso berri duen poltsara so egin du Margarik, kontserba latak. Balkoira zuzendu da malkotan urtzera.

Euria hasi du. Emakumea ahul sentitzen da oso. Badu barnean oinaze bat aspaldian, egunen joanaz bizi gogoa indarrez atzitzen, kentzen diona. Ez da zori latzak eragindako ebakia, baizik eta arima barnean sorturiko zulo beltza, egun baten gorrotoak bultzatuta harturiko erabakiak alhatzen dio kontzientzia. Adorea, aurrean dituen teilatu umeletan, parke baztertuan, lotsaz ezkutatu diren izpietan, zirimiriaren melodian, zuhaitzen biluzian, kale katu marrakarien biboteetan aurkitu nahi du. Agian hodeiekin batera desagertu beharko luke berak ere biharamunean. Baina dudak, dudak lagun bezala baino oztopo bezala jarduten du Margarirentzat. Eta azkenik bai, erabaki du, oraindino ez daki zer bidetik joanen den, baina hurrengo eguzkiak argitzean agurtuko du mundua. Laster, aurki mintzatuko da horren denbora luzez ikusi ez duen begiradarekin.

Txakur zaunkaren pare sartu ziren hizkuntza arrotz hartan egindako oihuak bikotearen belarrietan. Ikusteko

gaitasuna guztiz berreskuratu gabe, altxatu eta mugitzera behartuak izan ziren. Behin kanpoan, herriaren eskeleto biluziak ustekabean harrapatu zituen. Emakumearen erreakzioak, bizitzaren beraren antzera, ez zuen arrazoi jakinik izan. Garrasi eta histeriatan eztanda egin zuen, eta kemen gabezian, lurrean abailduta jarraitu zuen agonia. Berdez jantziriko bibotedunek oihu ozenagoz erantzun zioten, baina gaztea gelditu ez eta ostiko eta zapladei eman zieten hasiera. Gizonak, larriturik, bere emaztea hausterreen artean bizitasuna galtzen ikusi eta gelditzeko eskatu zien kapela arrozdunei behin eta berriz. Bizia jokoan egiteko garbantzuen lekuan jarrita, maitaleei tramankulu beltz, luze eta goriak baldokietan jarri zizkieten, eta zutik jarraitzen zuen eraikin gutxienetariko batera zuzendu ziren.

Margari ahula bultzada batez behera bota eta Sabin bibotedun batek helduta, biei iseka eta mehatxu gordinak zuzendu zizkieten.

«Hemen guk esaten duguna egiten da» errepikatzen zuen irrifar maltzurrez sendoenak, «eta nahi dudana botei distira ateratzea bada, egin eginen dut». Esan eta lurrean etzaten zen gorputza gogor ostikatzen zuen.

«Eta nahi dudana zorua garbitzea bada …»

«Egin, egizu!» Adoretzen zuten kide berdeek.

Eta beste ostiko bortitzago batez lurrean zehar jiratuz higitu zuen neska.

Azken jarrera hau ez zuen inolaz onartu gizon zapalduak, eta bortizki erantzun zuen estutzen zuen soldaduaren aurka. Ahotik odola eragingo zion zaplada bat besterik ez zuen ira-

bazi, eta irribarretsu hortzak erakutsiz xuxurlatu zion buruak belarrira:

«Eta agintea dudanez, nire merezia jaso beharko dut. Zer iruditzen?».

Esperantza ia guztiz itzalirik, gelaren hegian zegoen neska, geldi. Goraki mintzatu berri zen soldadua beregana zuzendu, tirakada batez ohe-atorra zarpaildua erantzi eta bertantxe hasi zen gaztearen gorputz ahulaz aprobetxatzen. Zerri doilor alaenak eginiko arnasketa ozenek eta emaztearen aiene ia entzunezinek sekula ez bezala atera zuten gizona bere senetik, eta ustekabeko ausardiaz piztu zen maitea babestu nahian. Agintariak, lana bukatutzat emanda edo erdi bidean utzia ere, soinak jarri eta gehiegi hausnartu gabe infernuko mamorroaz burua erdibitu zion maitale amorratuari. Gorpua eta gorputza atzean, lur haustuan utzirik, kanpoaldean zain zuten tiznaoan muntatu eta desagertu ziren berdeak, ibilgailuak berak altxaturiko hauts eta ke artean, txapel arraro eta guzti.

Ipar-haizea harrotu bezain pronto sartu da Margari egon-gelan. Litro erdi negar egin aurretik utzi duen lekuan darrai Angelek, oraingoan Estellek ekarririko *Neurex* kutxa ondoan. Angel. Gizaseme irribarretsuak, maitasuna birziklatzen irakatsi zion 20 urte ilunpetan iragan zituen emakumeari. Helduaroa xamur igaro zitzaion Margariri senar berria magalean izanda. Baina eroria da hurrengo daga emakumearen bizitzan, alzheimerrak gogor jo baitu Angel. Mugikortasuna, memoria eta burujabetasuna galduak ditu senar jada ez hain berriak. Bera zaintzen dihardu Estellek, ezinduaren emaztea ez baita kapaz.

Baina bada beste galera bat, barnean amildegi iluna sortarazi diona urteetan zehar emakumeari. Inoiz izan eta

galtzen utzitakoaren ausentziak eragiten dio sufrimendu hau, eta apurka-apurka iraungitzen du. Sekula izan den osin sakonena bizi da Margariren barrunbeetan, hilabete gutxi zituen haurra gerrako umeekin bidali zuenetik. Izan zuen 1938ko negu goiztiarrean neskato bat, nahiz eta hau orduan bihotz eta arimaz gorrotatu. 19 urte gazterekin, eta gerra egoera bizian, emakumea ez zen gai izaki hura bakarrik mantentzeko. Begi ttipi ñabarretara erreparatze hutsak halako samin beldurgarri bat sentiarazten zion orduango Margariri, aita zerri frankista ezezagun bat zela jakinik. Eta orain, 52 urteren buruan, badaki hor nonbait dela, Frantzia apartean, bere hertz bat.

Piztu da sendatutzat jotzen zen zauria, bakardadea gerturatzen doan heinean berriro ere. Aurrean ezer ez du ikusten Margarik, soilik nekea. Horregatik hartu du orri txatal bat, eta senargaiaren aldamenean bertan hasi da izkiriatzen bere azken agurra. Letra etzan eta estua egin izan behar du, jazotako nahigabe oro gutunean kartzelaratu nahian. Baina sinadura jarri duen momentuan konturatu da atzera pausurik ez dela, halako bultzada bat dator barne amildegitik. Ezin da hurrengo egunsentiaren esperoan geratu, heldu zaio joateko unea. Paper tolestua mahaitxoan utzita, ekaitzak astintzen duen balkoira hurbildu da, koldarrik ausartenak duen determinazioaz. Atea korritzean laster heldu zaizkio euri tantak. Eta teilatuak gero eta umelagoak, zuhaitzak larrugorriagoak, izpiak herabeagoak eta euri malkoen talka gogorragoa da. Begiak hetsi ditu Margarita Gojenolak, agortuak dira negarrak. Soinak pisua hartzen doazen bitartean, jauzi perfektu baten bidez ortziranzko autobia nola hartu bilbatzen du.

Seiak dira hurrengo eta arratseko pilulak hartu beharra du Angelek. Lanbasa albo batera laga eta egongelara zuzendu da Estelle *Neurex* kutxatxoaren bila. Eta hara hor bere ezus-

terako orri txatal ezezagun bat. Ez du zalantzan jarri irekitzerik. Katilu bilako begiekin irakurri du nobela laburra, eta amaitu bezain pronto erori zaio papera lurrera. Gurdikada bat irudi, ahots eta sentimendu lausotu eskaini dizkio bihotzak bat-batean. Ezagunak, gertukoak dira gertakari hauek Estellentzat. Instant batean dena ulertu du. Korrika arakatu du etxea, segundoek ihes egin ez dezaten, berandu baino lehen aurkitu behar du ama. Korronte hotzak balkoi irekira gidatu du, eta beso leunen artean bildu du azulejuen gainean konortea galdurik dagoen Margari. Barrualdeko epeltasunera sartu du arduraturik, pultsua ikaragarri geldoa baitu. Laster zabaldu ditu begiak zorionez, eta zurtuta ahoskatu du:

«Estelle?»

Erantzuna jaso du supituan.

«Izar.»

# Kristalaren bestaldetik

Katalin Ibarzabal Galarza
Gernika institutua
Gernika-Lumo

Urteak igaro dira Joxeren tabernara iritsi nintzenetik. Sei mila zerbeza inguru sentitu ditut, 4 mila Coca-Cola eta whiskyren bat edo beste. Hala eta guztiz, Joxek zerbitzatzen duen edari bakoitza ezberdina dela esango nuke, bakoitzak jabe ezberdinak dituelako eskatuak diren momentutik, eta jabe bakoitzak istorio bat du. Garagardo asko eskatzeko arrazoi ugari daude, eta arrazoi horiek ahora eramaten nauten momentuan jakiten ditut. Ospakizunetarako zerbezetatik bikote baten haustura gainditzeko hartzen diren whiskyetaraino, umeek hartzen dituzten mostoetatik gazteen kalimotxoetaraino. Hainbat jende ezagutu dut, adin, sexu eta arraza ezberdinekoa. Bakoitza istorio batekin, ahaztezina den istorioarekin.

Egun hotza da gaurkoa, June eta bere ama atetik sartu eta kafesne eta Cola Cao bat eskatu dituzte. Junek Cola Cao-a eskuartean hartu du eta gogor eutsi dit, apurtu nahiko banindu bezala. Eskuak berotzen ditu, hotzak dauzka, baina arima sutan. Ume zintzoa izan dela uste du eta Olentzerok aurten oparirik ere ez dio ekarri… Gainera, ama negarrez ikusi zuen bart, lanik ez duelako. Juneri ez zaio horren ideia txarra iruditzen lanik gabe egotea, izan ere ama beti dago etxean eta sarriago ikusten du. Ahora hurbildu nau, poliki, putz eginez, badaki eta laba dirudiela esne honek. June ume ona

da, zintzoa, ama triste ikusteak arima urratzen dio. Orain bere aurrean eserita dagoela ama, gorputza hor duela badaki, baina burua galduta du; Junek bere lehengo ama nahi du. Ama langilea eta lehen erosten zizkion jostailuak nahi ditu. Olentzerok ekarri ez, eta datorren urtera arte itxaron beharrak negar batean hastea eragin dio. Ama ez da konturatu.

* * *

Gogoratzen zaitut. Ezagutzen ditut ezpainok, dastatu ditut, dastatu nauzu noizbait. Baina noiz? Ez dut zure aurpegia ezagutzen, ez eskuak, baina ziur nago dastatu zaitudala. Hurbildu nazazu berriz ezpainetara. Badakit, badakit nor zaren. Orain ez duzu barrerik egiten, horregatik ez zintudan ezagutzen. Hamaika aldiz eskatu duzu mostoa tabernan eta izotzekin ahoan alde batetik bestera lasterka ikusi eta entzun dizut, «Ama, ama!» oihukatzen. Ume zarenetik ezagutzen zaitut Maialen. Zer gertatzen zaizu orain? Gaur bezalako egun gris batean zerk ekarri zaitu hona babestera? Zerk eragin dizu mostoko mahatsak, ardoko mahatsengatik aldatzea? Eta lehen gozatzeko edaten zenuen hori zergatik edaten duzu orain itotzeko? Zure ezpainetan sumatzen dut bakardadea, pena, agonia… egizu negar Maialen. Trago batean edan duzu ardo guztia eta malkoetan isuri duzu. Harritu nau zure ezpainetan irakurritakoak, neu ere tristatu nauzu. Ez dut zure ezpainetara hurbildu nahi berriz, sufrimendua baino ez didazu transmititu. Ez dut berriz sentitu nahi. Baina gogorra izan zaitezen esan nahiko nizuke, aurrera egin dezakezula, zure alabarengatik bada ere bularreko minbizia gaindituko duzula.

Joaten ikusi zaitut, begiak lausotuta tabernako atea ireki duzu, Joxe agurtu gabe. Laster elkar ikusiko dugu, eta zure

irriak dastatuko ditut berriz, edo zure alabarenak, Ainhoa txikiarenak.

* * *

Hara, hara! Gaurkoan ere ardo gorriz bete duzue mahai ingurua. Herriko nagusiak, herriko esperientziadunak, kontalariak, karta jokoan trebeak. Baina gaurkoan ez dakit nor den triste dagoena… Edo airean dagoena ez da tristezia? Ez, ez da. Dezepzioa da. Gure Martin da dezepzioz josita dagoena. Gaur ez dut nik zure ardo gorria, Martin, baina hemendik ikusten zaitut goibel. Zure semea beti izan da tipo jatorra, Martin, ez zaitez arduratu. Ziur nago, apustu egingo nuke, zuk orain musean jokatu dituzun harritxoen bikoitza, ez dela horrela gertatu. Txikitatik ezagutzen dut zure semea, Cola Caotik kalimotxora pasatzen ikusi dut, ez du laguna salatu. Gogotsu jipoitu dute eta ez diote kondena jaitsi, baina ez du laguna salatu. Guardia Zibilak aspalditik jarraitzen zuen semearen laguna eta ezin izan da gehiago ezkutatu. Atxilotu egin dute, baina ez da semearen errua izan, Martin.

Lasaitu zarela ikusten dut, nire berdina pentsatu duzu. Semea bihotz onekoa ez ezik lagun paregabea da, ea laster etxean daukazuen. Gabon gauean izaten duzuen aulki huts hori norbaitek bete behar du, berari barre egitea tokatzen zaion une hori norbaitek bete behar du, zure ilobak aita bat behar du. Segi karta-jokoan, Martin, oraingoan karta onak dituzula nabari da eta.

* * *

Gaurko eguneko lehen edaria eta garagardoa da. Hotza dago, baina oso ona. Garagardoak alaitzen nau, alaien edaria da, berriketarako edaria, jaien hasierako edaria. Gaurkoan

jai baten hasiera ere bada, Peru, Aintzane eta Leire datoz. Umoretsu datoz, urte berria ezin hobeto hasteko asmoz. Peruk trago batean garagardo erdia edan du, pozik dago azkenik amak buelta bat emateko esan baitio. Dena gainditu du eta mutil jatorra da, gaiztakeriaren bat edo beste egin dituen arren merezia du bueltatxoa. Peruk ordea badaki ez dela horrela izango, ez dela bueltatxo bat izango. Berak jai gogoa du, gaztea da eta debekatuta dauden gauzak egitea atsegin du. Ez zaio burutik pasa amak izango dituen kezka guztien zergatia bera izango dela, ondo pasatzea du helburu, lagunez inguratuta. Ez da inolako tristeziarik sumatzen ingurumenean, denak alai daude ahaztezina dirudien gau bati hasiera ematen.

Barreka daude denak, irriak irrien truke eskaintzen. Hainbeste ezbehar eta tragedien ostean neuri ere ondo datorkit zoriontasuna sentitzea. Gazte baten zoriontasuna denean hobe.

* * *

Joxe eguneroko edalontzi garbiketak egiten ari da. Eskuetan hartu nauenean labaindu egin dut, eskuak xaboiz beterik zituelako. Lurrera erori eta zazpi mila zatitan apurtu naiz. Joxeri ez dio askorik axola izan, erratza hartu eta poltsa batean sartu nau. Nik segituan pentsatu dut ez dudala inoiz ezpainik sentituko, istorio gehiago entzungo, jende gehiago ezagutuko. Baina noizbait beste edalontzi bat izango naiz, edo botila bat eta orduan jende gehiago ezagutuko dut.

Laster arte.

# Zure begietara begiratzean

Ane Ugarteburu Perez
Lekeitio institutua
Lekeitio

Zure begietara begiratzean zoriona edozein zirrikitutatik sar daitekeen haizea da, batere uste ez dudanean agertzen zara gutxien pentsatzen dudan lekuan, eta hartzen nauzu zure indarraz eta jaso nazakezu airean, daukadan aldartea eta begirada aldaraziz. Zurruna bihurtzen duzu ezti, gogorra bare, eta tristea alai. Dena hankaz gora jartzen dakien haizea zara, edozein bazterretatik iristen dena.

Zaila izaten da ulertzea nola amets egiten bakarrik esan ahal dizkidazun hitz polit horiek, bihotzean kili-kili egiten didatenak, zerbaitetarako balio dudala sinestarazten didatenak, irribarrea ahoan jartzen didatenak, goizero-goizero bizitzako monotoniara bueltatzeko indarra ematen didatenak… bi hitz horiek…

Egun hauetan buruari buelta eta buelta nabil ulertu nahian zergatik zaren horrelakoa, zergatik zure begi beltz horietan mundua ikusi dezakedan, nola ulertu zure irribarrearekin hegan egin ahal dudan, zure eskua laztantzean bihotzak mila taupada segundoko ematen dizkidan, muxu ematen didazunean, muxu gozo eta bero horiek, eguna alaitzen didatenak, printzesa bat izango banintz bezala bihotza dantzan jarri ahal didaten.

Mila ordu eman ditut zurekin pentsatzen, mila eta bat gau zu nire ametsetako printze urdina zinela sinestarazten, zaldi

zurian gaztelura nire bila noiz etorriko zinen itxaroten, nire ametsetako heroia izan zara, nire amets guztietako protagonista, muxu bakarrarekin sagarraren pozoitik esna nindezakeena.

Baina mila eta bat gau horietan, mila ordu horietan, zu zeruko izarrik ederrena zinela uste nuen, eta orain, konturatzen naiz ez naizela gai zerura heltzeko, eta arnasaren hotsa bi soinutan banatzen da, kontrako iman bi bezala aldentzen hasiak gaude eta itsaso bete malko erortzen zaizkit. Tximeletek alde egiten dute eta ametsak amesgaizto egiten dira. Dena iluntzen da, oilarraren kukurrukuak ere ez dit esnatzeko indarra ematen, zure muxuen preso nago, zure laztanen menpe.

Buruari bueltak eta bueltak eman, eta lotsagarri sentitzen naiz, esan nizkizun gauza horiek guztiak ezerezean geratu dira, belarrira xuxurlatzen zenizkidan hitzek bat-batean alde egin dute, menpean genituen sentimendu guztiak alde batean utziz, ezer esan nahi ez balute bezala zakarretara jaurti dituzu, elkarrekin igaro genituen momentu guztiekin batera. Niretzat hainbeste esan nahi zuten gauzak, oparitu zenizkidan arrosa gorriak, bonboi kutxak, egin nituen ilusio guztiak, maitasun gutunak, airean ezabatu dira eta ez dira ezer jada.

Eta egun batean, beste bat dagoela konturatzen naiz, mundua gainera erortzen zait, labirinto batean galduta aurkitzen naiz, bere habia aurkitzen ez duen txori txiki bat bezala. Ez dakit nora joan, non ezkutatu, noren besoetara erori.

Eta zu beste horrekin zaudela pentsatzeak, beste hori laztantzen duzula, beste hori muxukatzen duzula, beste hori ni nintzela gogoratzeak, eta oraindik maite zaitudala aitortzeak, egunak iluntzen dizkit, ekaitz batek egiten duen lez.

Baina ekaitzaren ondoren eguzkia ateratzen da eta eguna argitzen da, ostadarra agertzen da eta denak berriz ere bere bidea hartzen du. Zuganako sentimendu horiek guztiak malko hutsetan geratu dira, jandako txokolate guztiak idatzitako maitasun aitorpenetan, gauero almoadarekin izandako bakarrizketetan.

Eta orain ondoan izan dudan lagun horri eskerrak nola eman jakin nahian, hainbeste lagundu didan adiskide horri, mukizapiak erosten zizkidanari, itsasoa baretzea egin duenari, zuk merezi ez ninduzula jakinarazi zidanari, jelosia horiek guztiak, barruko sumina kendu didanari.

Baina oraindik ezin zaitut burutik osorik kendu, beste hori nor zen jakin beharra daukat, gau horietan izan nuen amets gaiztoetan zure ondoan zegoenari aurpegia jarri behar diot, ikusten zaitudan bakoitzean zure esku horiek nork laztantzen dituen jakin, zure ohean berotasuna ematen dizun hori zein den, jolasean norekin ibiltzen zaren, ilegorria, beltzarana, begiberdea, ni baino ederragoa ote den jakin.

Nire eskuetatik eraman zaituen hori nor den jakiteko egunero-egunero jarraitzea dela modu bakarra konturatu naiz, eta horretan jarri naiz, hilabete batzuk lehenago egiten nuena errepikatuz, berriro ere atzera bueltatu behar zu bete-betean nire bihotzetik urruntzeko, aldentzeko, ezabatzeko.

Ostera ere zure futbol partidu amaigabeak, arbitroaren kexak entzuten goitik behera kamuflatuta, abeslari ospetsu bat izango banintz bezala zure itzal bihurtu naiz, egia esan Lady Gagaren itxura badaukat betaurreko lodi eta nire ile horiarekin eta ni hor nagoenik ere ez duzu antzeman.

Partidua bukatu eta kale artean jarraitzen zaitut, Sanpedropetik porturantz jaitsi eta etxera igotzen zara. Berriz ere egun monotono honetan ez dago niregandik aldendu zaituenaren usainik.

Igande arratsalde triste horietako bat da, eta lagunak jaitsiko ez direla esan dute, eguzkiak haitz artetik nola alde egiten duen ikustera joan naiz. Negua izan arren, zuhaitzak isiltasunean eta biluztuta egon arren, berotasuna nabaritzen da, itsasoa bare dago, herriko argiak jada urrun ikusten ditut, hondartzara heltzen ari naiz.

Eta olatu txiki hauen bizitza laburraren amaieran paseatzen nagoela, nire adiskide kuttuna mutil baten eskutik helduta ikusi dut, sorpresa eman nahian berarengana hurbildu eta sorpresa nik eraman dut. Nire amets gaiztoetan printze urdinaren zaldian zihoana nire laguna zen, nire adiskidea, hainbeste lagundu didana, gutxien espero nuen hura. Eta begiak negar malkotan itota, ezer esan gabe, nire hitzak, barruan daukadan gorrotoa irentsi eta alde egin dut.

Zure begietara begiratzean zorionak edozein zirrikitutatik ihes egiten du. Eztia bihurtu duzu zurrun, barea gogor eta alaia triste.

# POESIA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Arkatzetik errealitatera

Gemma Urteaga Garmendia
Beasain institutua
Beasain

1) Itsasoaren kresal usaina
gazia bezain garratza
haize leunak ferekatzean
hasten da olatuen dantza.
Ondarra eta hitzak nahastean
barruko errota martxan hastean
guztia jausten da, antza.
Nahiz bizikide ta bizimodu
bilakatu esperantza
azal barrutik beti hain erraz
ez da irteten arantza.
Itsaso zabal hontan sartuta
sentimenduek kondenatuta,
nahiz izan mila zalantza
berriz hartu dut arkatza.

2) Behin zuregana zuzendu nintzen
gutun-azal bat tarteko
gai izan nintzen sekula egin
ez nuena egiteko
gaur ere modu bertsuan nago
baina orduan baino ahulago
ez naiz sentitzen hobeto.
Ez dakit kapaz izango naizen
hitza papeleratzeko

sentimenduak orri zori huts
batean tatuatzeko.
nahiz eta izan hamaika duda
hamaika asun eta arantza
gaur ere ordua heldu da, antza
negar tantak irensteko
ta euretan itotzeko.

3) Zergati baten atzetik sarri
nabil behera eta gora
zure irria, zure begiak
ekartzen ditut gogora
eta nireak berpizten dira
itsasoratuz hortik gutxira
ezintasunaren froga.
Zure begiek saltzen didate
Ezker bularraren droga
ulertu nahian ibili arren
ez naiz inondik inora
sentimendu hau ulertzeko gai
baina jada ez dut ulertu nahi
ulerkeriak albora
bizitza bizitzeko da.

4) Denbora luzez sentimenduek
barrena zidaten sutzen
inpotentziaz, ezinegonaz
burua nuen estutzen.
Zortzi bat bertso egin nizkizun
ta bertan dena aitortu nizun
hasiz sentipenak urtzen.
Nire bihotzak nire burua
zein estu zuen estutzen
hortik gutxira gau hotz batean
zure erantzuna heldu zen…
Nahiz eta jaso zure ezetza
lortu nahi nuen nire ametsa
ta horregatik hain zuzen
ez naiz ezertaz damutzen.

5) Nahiz sentipenak zuhaitzen hosto
zimeletara zabaldu
ustezko ausardiaz jausten den tintaz
ezin dut ezer azaldu.
Hitzak hitzekin mozkortzen dira
ni mozkortuko banintz sikira,
honek zentzurik ba al du?
Barneko ezpatak eta fusilak
ezin ditudanez saldu

nire burua ez dagoenez
gezi hilkorretik salbu
nahiz ta prest egon borrokatzeko
ta bihotzari kontra egiteko
denbora zergatik galdu
berak irabazten badu?

6) Mila ilunabar dira naizela
ekaitz beltzaren bezero
egunsentia iristea nahiz
barru-barrutik espero
hasierako desio hura
txapapote latz bilakatu da
zer gertatuko da gero?
Itsaso beltza garbi lezakeen
formularen bat balego…
Panorama hain hits ikusita
nola ez bihurtu ero
nahiz eta izan kilo bat kemen
zure ondoan egon ezin den
norbait oroitu ezkero
egunero-egunero?

7) Noraezean gau hits hotzetan
zenbat buelta, zenbat bira
erantzun baten bila sarritan
bidaiatuz ilargira
baina bertan ez dago erantzunik
edo begiak itxi ditut nik
mila nahi, mila desira.
Ezkatik gabe dagoen arraina
ez da helduko urrutira
itsasertzetik begiratu dut
ortzemugaren erdira
ur gazi-geza, ur gez gazia
antsietate hutsez josia
itsasoari begira
bi ur motak nahasten dira.

8) Azken hitzekin iritsiko naiz
sortaren amaierara
nahiz sentimendu ugari itsas
hondoan ditudan laga.
Zure bihotza nahiz izan xede
zure bidean inondik ere
ez dizut egingo traba
eta bertatik aldenduko naiz
zuk gura duzuna bada

zoriontsua izango bainaiz
zu zoriontsu bazara.
Barneko hitzak agortu dira
edo agortzea nuke desira…
Arkatza utzi dut jada,
betirako beharbada.

Doinua: Izarren hautsa

# Lurretik altxatu gabe

Mikele Landa Eiguren
Gabriel Aresti institutua
Bilbao

(Gernika, Gaza, Argel… eta Bilbo)

**BEGIAN**

tulipaiak loratzen daude
aspaldiko partez.

Itsasoa bare dago
bare, bare
arrainak lo daude.

Ez dago dunarik harrotzen
duen haizerik
ez odolik.

Treneko leihotik
ez da zapi zuririk ageri
gaur etxean geratu dira.

Enarak, etxera itzuli dira
bi taupadatan
etsairik gabe.

Geltokiko erlojuaren orratzak
geldi

denbora aurrera doala
inor ohartu ez dadin.

Oz-eko bidean
harlauza horiak
hutsik daude.
Ez du inork etxerik galdu.

Pianojolearen hatzamarrak
izotz arrakalak
tantarik gabe, notarik gabe.

Buganbila ustelak ere,
inoizko berdeen
obrako aldamioan.

Urrutiko lurraldeetan
gertuko herrietan
postariak ez dauka gutunik.

Geldi
dena geldi

Zurrunbiloaren begian.

(Gaza, 2012ko azaroaren 18a)

## HAUTSETATIK ERRAUTSA

Azalean izarren hautsa
sudurrean, ahoan, izterretan
izarren hautsa odolean

Zapata gabeko bi oin
hautsez estalita
korrika, hondarrean ihes egindako
iraganari segika
korrika, hondarrean segika datorren
etorkizunari ihesi.

Eztanda bat
esan gabekoa irentsi
gorpu bat
izarren hautsa, odola.

Azala errauts
sudurra, ahoa, izterrak
errautsa, odola.

(Bilbo, gu)

## AMETS ERRADIOAKTIBOAK

Pistola hotsa entzun duzu,
hasi da zure etorkizunera ihesa.
Podiumaren tontorrean,
bekokian idatzi dituzun amets erradioaktiboak
korrika aurreratu zaizkizu.

Ez egin estropezu!
heroien ametsak
zureak izan behar dira.
Nahi duzuna izatera heltzeko,
ezin duzu denbora eman
ea hori nahi duzun pentsatzen.

Hamar, bederatzi, zortzi…

Ahoa zabaldu zaizu,
irribarre zabalean,
edo arnasa hartzeko ahaleginean.

Zazpi, sei, bost, lau…

Lehenago bidez erratu bazara
ez begiratu atzera,
inozentziaz beteriko ametsak ziren
amets txikiak, garai batekoak,
orain ez dira zureak.

Hiru, bi, bat…
Heldu da, harrapatu ez badituzu
akabo.
Etorkizuna galdu duzu
Zero.
Amildegia.

## OHOLTZAN

«Ni naiz naizena»
baina, ez naiz ni,
izan nahi dudana
naizenean, hegan egin dezaket
lurretik altxatu gabe.

Badoa, lotsa. Banoa.
Eta pentsatu gabe
nahi dudana dut buruan,
ez naizena, orduan bakarrik.

Itsu nagoela dena ikusten dut,
Akaboan,
ez dut lotsarik
ez naiz ni.

Ni naiz naizena,
baina izan nahi dudana
naizenean, hegan egin dezaket
lurretik altxatu gabe.

Teloi gorria jauzi arte.

# Zulo beltza

Maialen Akizu Bidegain
J.M. Iparragirre institutua
Urretxu

Bukatu
hasieran egiten da.

Bere bizkarra ikusi nahi duen
arrain bat.
Zapatapeko txikleak
bidea
zeini zailtzen ari den jakin nahi du.
Haizearen laguntzaz
geldituko ez duen lurrik ukitu gabe
buelta eman nahi duen hostoa.
Bukatu
hasieran egiten da.

Gauzak aldatzea
erabaki dudan honetan,
txoriei hegan egitea
debekatu diet,
haizeak gida ditzala.
Zuhaitzak
buruz behera jarri ditut,
sustraiek arnasa har dezaten.
Sagarrak,
lurrean hazi
behetik gora erortzen dakite.

Hiztegia
ordenatzen duen
hitz bakoitzaren kasualitatezko
lehen letra ezabatu.
Ixten ez diren ateak asmatu.
Trenaren azken geltokia
lekuz aldatu.

Existentziaren dudak.
Zurrunbilo bat
aire ezdeusa
mugiarazten du.
Dena zatitu,
nahastu
eta ezerezetik
beste izate bat sortzea dut helburu,
egungo egituran,
begiradan soilik desberdintzen dena.

Zurrunbiloak sortutako
zatiak itsasten
has naiteke.

Lehen hortza erori zitzaidanekoa,
eskolako antzerkian pasatako lotsa.

Lagun batekin mutil batengatik haserretu nintzenekoa,
iazko Olentzeroren oparia,

Piezek
ez dute bat egiten
bakoitzak
muga desberdinak ditu.

Zulo beltza.
Zurrunbiloa.
Ezereza.

Asteazkeneroko amets gaiztoa,
lehen hilerokoa,
herriko festen euforia,
igogailu barruko beldurra.

Loturak
hutsuneak dira,
interferentziak.

Zulo beltza.
Zurrunbiloa.
Ezer eza.

Dena noiz hasi zen jakin nahi dut,
zerua zergatik zen urdina
galdetzen zuen neskatoa izateari
noiz utzi nion.
Argazkiko irribarre zabala
egitearen arrazoia
noiz ahaztu zitzaidan.
Litxarreri artean
ustekabean
ditxosozko zulo beltza
noiz irentsi nuen,
noiz irentsi ninduen.

Zurrunbiloa.
Ezereza.
Zulo beltz bat naiz.

Inkontzientea %99 dudan honetan.
Existentziaren dudak.
Bukatu
hasieran egiten da.

# Kate-begiak

Itziar Ugarte Irizar
Txantxiku ikastola
Oñati

Beha,
zenbat hitz egiten den eskubideez,
hagin bitarteetan geratzen direla hitzak,
ahoko zaporea higuingarriegia suertatuz.

Beha,
onartzen hasiak garela hau gure zibilizazioa dela,
iraultzan sinetsi edo ez,
berau moldatzen dihardugula.

Beha,
idatzita daude gure penak,
sentitu zituzten aurrez ere.

Konformatzen jakin baneza,
ez litzateke horren minkorra.

Sentitu zituztelako aurrez, idatzita datoz nire penak.

—

Ero denaren edertasuna,
ameslariarenaren antzean,
bortxaren biktima den aldiro,
dezentzia da obeditu beharreko agindua.

Perfekzioaren antzerkia lotsagarriegia da
eta horra hor parodia eskasa hegi guztietan.
Zaparrada zakar baten osteko txintxina bezala.
Hasi behar ez zenari, amaiera eman ezinik.

Gehiago nahi dugu ontzi erdi hutsean,
ez da nahiko ontzi erdi betea.
Eta zer gakoa ez balitz
zenbat?
Ontzian zer den,
edo ontzia zelakoa den baizik?

Ahazten dugu:
Dohaina ala duina?
balio erantsia ala balio erantzia?
—

Hamaika iritzi,
hamaika iraultza
ezin fidatzeko gure erabakiez.

Elkar zapaltzen dihardugu
mila guda txiki arnasetan daramatzagula.

Herriak gosaritarako,
behatz hori bi ketan eta
fatalista eta utopikoen begi-zuloak kafetan.

Eta gazteegi ditugu bihotzak
abailtzen hasteko.
Maitasuna edo konpainia
partxe ahul diren ordu luzeetan.

Ez eskatu azalpenik negarrei,
izterrak ireki nahi dituzten putei,
zutitzeko indarrik ez dutenei,
zoriontasunik baden jakin nahi duten garrasiei.

Ez eskatu azalpenik,
entzun eta ulertuko gaituen hori gu geu inoiz izateko.

Bozgorailuek,
«egunen batean esateko,
mundua aldatu ezin genuen zerbait dela» .

Ez da zertan ulertu.
Fedeak jada ez du konbentzitzen
eta konpromisoa izan arren berarekin,
mundua ez da ulertzen.

Ederragoak omen baikara isiltzean.

—

Kate-begiak kalean,
begirada batetik bestera zintzilik tenkatzen.
Begi bi, kate-begi.

Dogma esklabutza da,
arrazoia tirania eta
zalantza freskura.

*Begiradak hilko balute...*
Hilko balute,
ez legoke ez bizi, ez begi!

Aurreiritzi, on-iritzi, keinu adeitsu.
Beharrak bizia herdoildu,
besteen aburuetan amildu.

Errotuta beldurra.
Horren da arma ona,
gure buruaz beste egiteko balio du.

Dena den, norbera ez da
besteek beraz uste dutena.
Horrek salba zaitzake.

Egiari zor,
zein ez dago baldintzapean aske?
—

Gure tabernetan oraindik erre badaiteke,
askatasunak adina ezerk ez gaituelako seduzitzen izanen da.

# Itzalarekin solasa

Ane Villagran Arrastoa
Santo Tomas lizeoa
Donostia

**A**ltxorren mapa
besapean harturik
bestelako
mundu hau
bestelakotzen
entseatu zinen.
Akordatzen?

Ulertu ez eta
ametsak ihartzea
ogibide duten haiek
gaztelu handi hartako
ziegarik ilunenean
hartu zintuzten
preso.
Zuk baina
leiho estu bakarretik zetorren
argi errainu mehean paratu eta
korrika aldegin zenuen
kanpora,
nahinorantza
eta nahieran
abiaturik.

Hitz oro da apal
zeure letren alboan.
Zure poesiak betetako zenbat eginbide!

Noiz arte
iraunen du gure esperoak,
ahotsik gabeko hitzek?
Erantzungo duen
armiarmarik ez
inguruan.

Eta nola,
nola eginen duzu
etxerako bidea?
Urrunetik al zatoz?
Oinez itzuliko al zara?
Hegaz bazatoz
ez diezazkizutela hegalak
bidean harrapatu.
Ahantzi furgoiak.
Edo trenez agian?
bai, trenez ziur,
estazioko begiradekin
nahasiaz.

Jakizu,
jakizu geure serraila
ez dela oraino aldatu,
gogoaren giltza
beraz ireki ahal duzula.
Eta zure sustraiek
han dirautela,
hemen,
gure enbor ahulak
lurrari
gogor
finkatuaz.

Zure gerizaren
falta sumatzen dugu baina,
sarri.

## II
## AMETSEN IRAUNGITZEAZ

Lizun usaina dute
ene ametsek.
Ez ditu haizeak
aspaldian harrotu.
Orbela lez

usteltzen hasiak dira ene ametsak.
Pospolo kaxa galdu duen
pospolo haren moduan
ene ametsek ez dute sekulan
su hartuko.
Beren garrek ez dute
inongo iraultzarik piztuko,
ez eta herrialde urrunetako jendearen
ilusioak kutsatuko.
Burkoaren azpian ditut
ene ametsak
giltzapeturik
mukizapi zaharraren alboan
preso.

Harik eta egunen batean
Izarapetik
alde
egiten didaten arte.
Zeren ametsek
ametsek ere
beren iraungitze data dute.

# Teloia jaisten denean

Maialen Akizu Bidegain
J. M. Iparragirre institutua
Urretxu

1-«Bizitza dena antzezlan bat da»
esan zidaten umetan.
Erreparatu nuen orduan
nire gidoiko hitzetan.
Isilunea maite nuela
ikasi nuen hizketan.
Bi hankak noiz ta nola zabaldu
paperaren esanetan.
Buruz nekizkin irriek malko
inprobisatuak bueltan.
Patuaren ametsetan,
langintza honen orekan.
oholtzatik behera nahiz jaitsi jada,
ez dut bereizten bietan:
noiz ari naizen gezurretan ta
noiz ari naizen benetan.

2-Berotasuna aurkitu nahian
nire barneko hotzean.
Begi koloreaz ezin oroitu
zutaz pentsatzen jartzean.
Ez dakit zenbat zimur dituzun
irribarre bat sortzean
Zure arnasa ezin sumatu
hain goxo xuxurlatzean.

Zeri heldua ez dut aurkitzen
zuri eskutik heltzean.
Hala ere balantzean,
zure aldera erortzean
laztanen forma eztenkada bat
bihurtzen da bihotzean
Bakardadea handitzen baitzait
muxu umel bakoitzean.

3-Nik neuk bakarrik nabari al dut
maskara daramadala.
Hori izaten dugu akaso
aktore denon perkala.
Iruditzen zait foku aurrean
dagoela soilik gala.
nik zer egingo zain dagoela
begirada arrotzen sala.
Sentitzea ta izatea bi
gauza balira bezala
ispiluan jarri ahala
bihotzari hiru bala.
Nire isla berriz ikus dezadan
eskatzen dut ozen hala:
Nire burua ezin maite ta
norbaitek maita nazala.

4-Oxigenoa lapurtzen duten
dudekin ezin da bizi.
Nire itxura duen pertsonaia
hontatik nahi dut bereizi.
Hitzez hitz nola eta noiz esan
mitina ondo dut ikasi,
baina zure bi begi marroiek
mingaina didate nahasi.
Dena azalduz gaur ere dizut
mezu luze bat idatzi.
«Baina hain dut indar gutxi,
hobe dut biharko utzi».
Gauero amets egin asmotan
begiak ohi ditut itxi
baina antzerkia ez da bukatzen
nahiz eta teloia jaitsi.

5-Printzesatxo bat izan nahi nuke
nire grano guztiekin.
Niretzat hemen lekurik ez da
zu gabe edo zurekin.
Nazkatua naiz jadanik beste
bide bat behar dut ekin
Bi hanken ordez urrutirago
hel ninteke hegoekin

trikimailu zein sorginkeriei
ateraz hainbat etekin.
Ez forma eta ez erpin
marrubizko bihotzekin,
pozik margotuz dena izenik
gabeko koloreekin.
Fikziozko mundu bat sor dezagun
pertsonaia errealekin.

Doinua: Bertsotan bai (Andoni Egaña)

# Panpin etxea

Mikele Landa Eiguren
Gabriel Aresti institutua
Bilbao

–Sustraietatik pozoitzen gaituzte, arantza bihurtu ez gaitezen.–

## PLASTIKOZKO LOREAK

Begien bistan
Ehun mila gorpu gordin,
Zikin.
Arrosa gorriak usteltzen dituzte
usteltzen saiatzen dira
arrosa gorri usaintsuak.
Ustelak.
Erabili eta bota,
bota, beharrezko ez direnen
multzora, bota,
ez direnen multzora.
Bota.
Gazte, alai, argi, haren
haize freskoa, pentsaera ideia
beroa erre, sutan erre.
Errautsetara.
Gorpu zikin
Arrosa ustel
Zabor multzo
Ideia errauts

Baina denborak usaina daroa
Usaina daroa.

Eta larrosa berriak
landatzen dituzte.

–Paradisua margotzen dugu hormetan, ez itotzeko–

## DANTZA PANPINA

Egurrezko kutxatxoko dantza panpina
izan nahi nuke.
Jaio nintzen momentutik
dantza fin bera dantzatu.
Amaren sabelean,
oraindik etorkizuneko ideia soila
nintzela
norbaitek
edo zerbaitek
irakatsi
edo jakinarazi
zidan dantza bera errepikatu.
Egurrezko lau pareten artean,
Larrosaz margotutako
lau Egurrezko horma.
(NIrea, Virginia harena.)

Dantza panpina izan nahi nuke.

Ezagutzen ez dudan
musikajole apartaren
erritmora hanka eta besoak
mugitu.
Orkestra zuzendariak
gidatutako musikaz
gidatu mugimenduak
aske banintz.
Egurrezko lau pareten artean,
larrosaz margotutako
lau egurrezko horma.

Dantza panpina izan nahi nuke.

Aurpegi fina, leuna, ederra
perfektua.
Beso fin luzeak,
dantzarako eginak.
Hanka fin luzeak
dantzarako eginak.
Horrela naute gogoko
kutxaren jabeek,
horrela baitut (halabeharrez)
gustuko neure burua.

Egurrezko lau pareten artean
larrosaz margotutako
lau egurrezko horma.
Egurrezko kutxatxoko dantza
panpina izan nahi nuke
baina enaiz
edo banaiz?

–Asma dezagun gure hiztegia, ulertezina, epaiezina.–

## ARKATZEZ IDAZTEN DITUT

Poema guztiak.

Garai batean orriak ziren
hitz askeen sorterriak.
Tinta tanta batez
azalean tatuaturiko gomutak,
inork ezaba ezin zitzakeenak.
Esan ezin ziren egien aztarnak,
agian bakarrak.
Granitoan zizelkaturiko
jainkoen gisan
errealitatea, orritan
islatzen zen betirako

arrakalak idatziz.
Arkatzez idazten ditut
poema guztiak.

Berben sorterriak,
deserri bihurtzeko
arriskuan daude nire orriak.
Iraungitze data jartzen diet
badaezpada…
Nire egiek, inoren begien
mehatxurik izan ez dezaten.
(ez baitira Bilbotar poeta haren egiak)
Orain ere hitzak debekatu ditzakete.
Ni ez omen bainaiz
errealitatean koherente.

Arkatzez idazten ditut
poema guztiak
ezabatu behar ditudanerako.

# POESIA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Zapi zurian, zirkulu ubela

Mattin Aranburu Guridi
J. M. Iparragirre institutua
Urretxu

Aurrean,
errautsa eta harria,
arroka gorrien orro gogorren burrunba,
infernuko bertsoa,
gertu.

Suzidun hesia,
horra sarrera,
sastraketan sasi San Pedro so,
zure zain.

Eroritako harresiaren harri artetik,
ikusi,
erresuma morea.

Barruan,
sorgin arloteen erratz zaharrak,
Galileoren teleskopio itsutuak,
Luziferren irri maltzurra.

Orain zara damu?
Berandu,
deabru andrea zain duzu!

Horma marroian makurtu,
tipi-tapa takoien talka,
lur beltzeko lohiaren kalaka makala,
malkoa uluka.

PUM!
Etsiaren itsu,
atxurraren etxe,
negarren erreinu,
labankaden testigu,
matxismoaren mundu.

Hemen ere bai,
lehenengo solairuan,
ez,
bigarrenean,
bizikleta txiki bat eta esekitokia dauden balkoian.

Zapi txurian,
zirkulu ubela;
amore ematearen ikurra dena estaliz,
etengabeko borrokarena sortuz,
amorea amodio bihurtuz,
behin,
bere besoa estaltzen zuten ubelduak gogora ekarriz.

Eta pauso bat eman du aurrera,
aurrera pauso bat,
ziurtasunez,
oin-zolan zorua sentituko duen segurtasunaz,
behin falta izan zitzaion irmotasunez,
Urtziren alboan jarriz.
Bere adar lehorra amildegiaren horman,
heldulekua,
oin-zolak airea besterik ukitzen ez zuenean;
ehuneko hirurogeita hemezortzi nitrogeno,
ehuneko hogeita bat oxigeno,
ehuneko bat beste.
Hori ziren,
ehuneko bat.
Besteak,
besterik ez.

# Idazmena

Irati Ricon Santoyo
Beasain institutua
Beasain

Bolalumaren laztan goxoa,
fereka maitekorra,
irudi, hitz eta soinu uholde etengabea
eta bolaluma kanala.
Adimenaren, bihotzaren irekiunea,
leihoa, atea
eta bolaluma giltza.

Orri maitea, bizitzaren ispilu,
barneko ekaitzen islada,
eta eguzki-izpien laku eztia.
Orri maitea, iraganeko mamuen agertoki.

Zenbaitetan, malkoz beteriko zapi.
Penen ekarle,
kontsolatzeko bide,
lagun paregabe, bakar.

Zenbaitetan, haserrealdien entzule.
Gorrotoen ontzi,
lasaitzeko modu,
maitale ulerkor.

Zenbaitetan, alaitasunaren ikusle.
Irribarreen erantzule,
bizitzeko era,
idazmena.

Gure bizitzaren oinatz,
bide-lagun etengabea,
arimaren erradiografia.

Barnean bilatu,
eta bertan hustu
nortasunaren fotokopia.

Hizkiak, irudiak.
Hitzak, marrazkiak.
Esaldiak, koadroak.

Giza garunetan istorioak margotu
margolari, eskultore, artista bilakatu.

Zure zati bat banatu,
izaera, nortasuna,
munduari erakutsi,
begien aurrean biluztu,
arte bihurtu.

Irakurmena, idazmena,
mundua atzean uzteko garraiobide.
Zeruranzko igogailu,
jakituriaren lehen pauso.

Ipuinak, istorioak, alegiak,
bizitzaren hasiera,
ikasgai garrantzitsu,
bizitzaren ibilaldia neurtzea helburu,
soinu-banda etengabe.

Hizki xehe, letra larri,
idazkera borobil, makurtu, zorrotz,
nortasunaren seinale.

Idazmena,
ihes egiteko bide,
sentitzeko gailu
husteko ontzi,
bizitzeko modu.

# Poemaz blai

Saioa Herreros Perea
Armentia ikastola
Gasteiz

## MAITALEAK MAITE

maite ez duenak ba al daki maitatzea zer den?

Nik j maite dut, j maite dut nik

maite ez duenak ba al daki elkar maitatua ez izanaren sufrimendua zer den?

Nik i maite dut, i maite dut nik

maite ez duenak ba al daki maitasunak ekar dezakeen gorrotoa zer den?

Nik n maite dut, n maite dut nik

maite ez duenak ba al daki maitasunak ekar dezakeen poza zer den?

Nik o maite dut, o maite dut nik

nik maite, zuk maite... maitaleak maite

## GRRT

sentitzen
sentitzen duguna
sentitzen duguna da
sentitzen duguna da sentituz
sentitzen duguna da sentituz sentitzen
sentitzen duguna da sentituz sentitzen duguna
sentitzen duguna da sentituz sentitzen duguna, GRRT!
Sentitzen duguna da sentituz sentitzen duguna, GORROTOA!



Zerk esaten digu ezinezkoa dela?
Nork esaten digu ez dela posible?
Maitasunak gorrotoak baino indar gehiago du
Guk, herri honetako maitaleok,
gorrotoa diguten horien aurkako guda irabazia dugu!

## TILIN TALAN

Tilin talan,
lainoen artean
tilin talan,
gure ametsei jarraituz
tilin talan,
beldurrak gaindituz
tilin talan,
gero eta handiago sentitu
tilin talan,
irribarrea zure aurpegian
tilin talan,
zerua ukitu arte!

Guk nahi duguna esaten uzten ez badigute,
mutu geratuko gara.
Guk nahi duguna egiten uzten ez badigute,
ezer ez egiten geratuko gara.
Guk nahi duguna pentsatzen uzten ez badigute,
zoro geratuko gara.
Guk nahi dugunerako bidea hartzen uzten ez badigute,
lekuan geratuko gara.

Baina nork nahi du ezer egingo ez duen
eta lekuan geratuko den zoro-mutu bat?



## DENBORA KONTU GEHIEGI

Atean deitu eta ordua galdetu dut
ordua galdetu eta erlojuari begiratu dio
erlojua begiratu eta ordubete falta dela esan du
ordubete falta da eta hogei minutuko bidea dut
hogei minutuko bidea dut eta amak hamar minutu lehenago heltzeko esan dit
hamar minutu lehenago egon behar eta 5 minutu beranduago irten naiz
ordubete ken 20 minutu, ken 10 minutu, ken 5 minutu
zertarako hainbeste denbora kontu, azkenean denbora kalkulatzen galtzen baduzu geratzen zaizun denbora?



# Kate motzean

Iñigo Perez Mujika
La Salle Beasain ikastetxea
Beasain

Soinurik garratzena,
ixiltasuna naiz
oihu egin arren.
Abortua,
lanaren umetokitik botatako
beste fetu ganoragabe bat;
Zenbaki bat gehiago
Bruselan.
Kabiarraz estaliko dute
kontzientzia txarraren zaporea.
Langostino buruari
zurrut,
langileei legez.
Ez zaie limoirik bota behar,
nahiko garratz daude;
gaude.

Langileak aldarrika
justizia eske;
Gazte bat garraxika
Edenaren bila
aditzen dut.
Norbaitek kontaturiko
beste txiste txarren bat.
Historia, irabazleak

idazten omen du;
justiziaren antzera.
Gure alde behar zuelakoan…
Txantxangorri habiako
kuku arrautza.

Historia…
Bazen behin
urruneko lurralde batean,
elefanteak eta eskubideak
ehizatzen zituen
errege zintzo bat.
Harrotasun eta poztasunez betetzen zena…
(zentsura)

Justizia…
Txirrinduan, basura artean
pasatzen zirenei
barre egiten genien.
Etxegabetuengatik,
negar egiten dugu.
Krisi garaian bizi gara.
garaiak ez dira
onak
baina bizi,

bizi gara.
Poloetako izotza,
urtzen doa;
bihotzak izozten.
Patua izarretatik at
omen dago.
Oraina,
gure esku omen,
omen?

Haizeari oihu egiten diot
norbaitek entzun nazan;
nire burua entzuten dut
ezerezari erreguka,
paretari hoska.
Garaia, aldatu egin omen da
garaiak, aldatu egin omen gaitu.
Garaiak, garai;
aldaketak, aldaketa;
txiroak, txiro.
Kate motzean.

# Zer gertatu da?

Mattin Aranburu Guridi
J.M. Iparragirre institutua
Urretxu

Lehenengo malkoa begi ertzetik irten da.
Bigarrenak masaileraino lagundu dio,
eta hurrengo biek,
aurrekoen bideari jarraiki,
lagunekin bat egin dute okotzean.
Eta laurak jausi dira.
Malko lodi bat.

Jertsearen tolesduretako batean desagertu da,
berde iluna are gehiago ilunduz.

Irribarre bat agertu da,
lasaitasuna dario,
baina jertseak iluntzen darrai,
han-hemenka.

Eta,
irribarrea,
malkoak irensten hasi da.
Gaurkoan,
ordea,
gazia gozatu du pozak,
su baxua piztu bihotzean,
Eta negar-tantek garrak harrotutakoan,
lasaitasuna euforia bihurtzean,

sua burura iristean,
kartazala gora bota du,
ukabilkada eman nahian,
baina,
aire hotza besterik ez du sentitu hatz-koskorretan.

Biraka,
ihes egin du paperak,
eta egongelako lurreraino erori da,
bere oin puntetara,
saminak belztutako errautsen parera.

Inpotentziak bat egin du nekearekin,
eta bultzada batez besaulkira bota dute.

Bere buruan horrenbeste paseo eman dituen arratsaldea dakar gogora,
ez da,
baina,
sepia kolorekoa.
Ez da txuri-beltzean ikusten.
Ez dago doinu alairik,
ez piano soinurik,
ate danbadak bakarrik,
irudi lausoen gainetik.

Igogailuaren hotsa,
*Abre a la Guardia Civil!* bat.
eta bi ostiko.
Atean.
Ordurako,
hurrengo bi egunetan zurrungarik entzungo ez zuen logelan zegoen,
amarekin.

Eta isiltasuna.
*Zergatik?* busti batek soilik hautsia.
Joan dira.

Sukaldean,
kafe kikara bat.
Ala bi?
Eta aulki bat.
Lurrean hirurak.
Bere ahoan,
*Zer gertatu da?* huts bat.

# URRUZUNOTARRAK
# 1986-2013

| ABIZENAK | IZENA | IZENBURUA | URTEA | ARLOA |
|---|---|---|---|---|
| Abaunza Urionabarrenetxea | Sara | Ametsen bila | 2013 | Prosa |
| Aboitiz Correa | Xabier | Ikaro | 2010 | Prosa |
| Agirre Aranguren | Iraitz | Ohore Galdua | 1998 | Prosa |
| Agirre Aranguren | Iraitz | Burua tente mutilak! | 1999 | Prosa |
| Agirre Aranguren | Iraitz | Maite duen orok... | 2000 | Prosa |
| Agirre Aranguren | Iraitz | Gorrotoaren mendekua | 2000 | Prosa |
| Agirre Aranguren | Iraitz | La dolce vendetta | 2001 | Prosa |
| Agirre Arriolabengoa | Manex | Aitona | 1997 | Prosa |
| Agirre Elgarresta | Martin | Idazmakina bakarti baten azken narrazioa | 1986 | Prosa |
| Agirre Garmendia | Alaine | Pausoak | 2006 | Poesia |
| Agirre Garmendia | Alaine | Ikararen korridorean gaindi | 2007 | Prosa |
| Agirre Garmendia | Alaine | Agian | 2007 | Prosa |
| Agirre Garmendia | Alaine | Insomnio gauetan idatzitako zirriborroa | 2007 | Poesia |
| Agirre Garmendia | Alaine | Hiru segundo eta erdi | 2007 | Poesia |
| Agirre Garmendia | Alaine | Azkeneko bidaian | 2008 | Prosa |
| Agirre Garmendia | Alaine | Denbora zer den | 2008 | Poesia |
| Agirre Gonzalez | Amaia | Zenbakaitzaren mugagabetasuna | 2006 | Prosa |
| Agirre Gonzalez | Amaia | Gatibu | 2007 | Prosa |
| Agirre Gonzalez | Amaia | Zeruertzaren bila | 2008 | Prosa |
| Agirre Gonzalez | Amaia | Tximeleten jolasa | 2008 | Poesia |
| Agirre Larrea | Antziñe | Irrati baten gora-beherak | 1986 | Prosa |
| Agirre Lazkanoiturburu | Mikel | Zergatik? | 1989 | Poesia |
| Agirre Madariaga | Uxue | Oroitzapenen ziega | 2010 | Prosa |
| Agirre Mosquera | Uxue | Espero ez nuena | 2010 | Poesia |
| Agirre Zapirain | Ugaitz | Malkoz josiriko bandera | 2008 | Poesia |
| Agirre Zapirain | Ugaitz | Erokerian | 2009 | Poesia |
| Aizpiolea Martikorena | Maialen | Azken orbela | 1997 | Prosa |
| Aizpuru Segurola | Kristina | Isiltasunaren oihartzuna | 1999 | Prosa |
| Akizu Bidegain | Maialen | Blas | 2011 | Prosa |
| Akizu Bidegain | Maialen | Ipuin batean bezala | 2011 | Poesia |
| Akizu Bidegain | Maialen | Hozkada | 2012 | Poesia |
| Akizu Bidegain | Maialen | Espaloian noraezean | 2012 | Poesia |
| Akizu Bidegain | Maialen | Teloia jaisten denean | 2013 | Poesia |
| Akizu Bidegain | Maialen | Zulo beltza | 2013 | Poesia |

| ABIZENAK | IZENA | IZENBURUA | URTEA | ARLOA |
|---|---|---|---|---|
| Alberdi Estibaritz | Antton | Ez dut ezer ulertzen | 2002 | Prosa |
| Aldabaldetreku Etxeberria | Gotzon | Itzultzerik gabeko bidaia | 1993 | Prosa |
| Alduntzin Egizurain | Unai | Morte nel carnavale | 2008 | Prosa |
| Alduntzin Egizurain | Unai | Izango al du udaberririk negu honek? | 2009 | Prosa |
| Alonso Allue | Leire | Azken dantza hau | 2011 | Prosa |
| Alonso Allue | Leire | Autopsia | 2012 | Poesia |
| Alonso Allue | Leire | Alzheimerraren doinua | 2012 | Prosa |
| Alonso Allue | Leire | Jainkoaren izenean | 2011 | Poesia |
| Altuna Angiozar | Nekane | Niregandik urrun | 1987 | Poesia |
| Altuna Angiozar | Nekane | Baldin argia ikustera iristen banaiz | 1988 | Poesia |
| Altuna Jauregi | Karmele | Praisku mutil zaharra | 1986 | Poesia |
| Altuna Jauregi | Nuria | Bizitza horrela delako | 1987 | Prosa |
| Alvarez Gerriko | Ion | Betidanik, betirako | 1990 | Poesia |
| Alzate Azpiroz | Jon | Zozketagai xelebrea | 1992 | Prosa |
| Alzugarai Sacristán | Aitziber | Zergatik? | 1988 | Poesia |
| Amondarain Ipiña | Gaizka | Margotu ninduten | 1999 | Poesia |
| Amondarain Ipiña | Gaizka | Urtaroen klandestinitatean, zu | 2000 | Poesia |
| Amondarain Ipiña | Nagore | Gogoratzen haiz | 1995 | Poesia |
| Amondarain Ipiña | Nagore | Malekoitik so | 1997 | Poesia |
| Amozarrain Mendizabal | Idurre | Pentsamenduak | 1995 | Poesia |
| Ansa Arbelaitz | Garazi | Iratzargailuaren orratz herdoilduek martxan dihardute | 2005 | Prosa |
| Ansa Arbelaitz | Garazi | Oraina iraganean ahazturik | 2005 | Poesia |
| Anzizar Lizarraga | Nerea | Blues bat gauaren iluntasunean | 1997 | Prosa |
| Apaolaza Goena | Amaia | Amaigabeko itukin latzak | 1992 | Prosa |
| Apaolaza Goena | Amaia | Zaharra berri... orain eta beti | 1993 | Prosa |
| Apaolaza Larrea | Uxue | Azken bost minutuak | 1996 | Prosa |
| Aranburu Aseginolaza | Iñigo | Sahatsaren azken negarra | 1987 | Prosa |
| Aranburu Aseginolaza | Maria | Bi hitz nire pentsamenduen maizterrari | 1990 | Poesia |
| Aranburu Guridi | Mattin | Gau luzea | 2012 | Prosa |
| Aranburu Guridi | Mattin | Zapi zurian, zirkulu ubela | 2013 | Poesia |
| Aranburu Guridi | Mattin | Zer gertatu da? | 2013 | Poesia |
| Aranburu Zeziaga | Xabier | Hiriaren ostadarra | 1989 | Poesia |
| Aranguren Juaristi | Olatz | Aztiaren eskuetan... | 1996 | Poesia |
| Aranguren Mujika | Josune | Ni ez naiz Amaia | 1997 | Prosa |

| ABIZENAK | IZENA | IZENBURUA | URTEA | ARLOA |
|---|---|---|---|---|
| Aranguren Oiharzabal | Ainhoa | Gauaren atseden isila | 1989 | Poesia |
| Aranzeta Zubeldia | Amaia | Iraultza | 2003 | Poesia |
| Arbelaitz Lekuona | Usua | Helmugara iristea, hori da kontua | 2000 | Prosa |
| Arbelaitz Sarasola | Olaia | Hantxe lokartu nintzen | 2003 | Prosa |
| Arejita Abaitua | Ane Miren | Errekaren mozorroak | 2013 | Prosa |
| Arenas Belamendia | Leire | Borobilean amaitzen diren istorioak: Narziso | 2011 | Poesia |
| Ares Amaia | Nagore | Urdinez tindaturiko hitzak | 2007 | Poesia |
| Aristizabal Tolosa | Ekiñe | Pairatzeak ikaratu ala ikara pairatu? | 2003 | Poesia |
| Arozena Velez | Maite | Aita, zer gertatzen zaio munduari? | 2001 | Prosa |
| Arratibel Galartza | Enara | Begi diztiratsuak | 1995 | Prosa |
| Arregi Elosua | Ainhoa | Konfidantzaren ordaina | 1988 | Prosa |
| Arregi Izagirre | Alots | Puntu ta komak garagardo aparretan | 2003 | Prosa |
| Arregi Izagirre | Alots | Paperezko hegazkinak biribil ezabatuan | 2003 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Alots | Belaunpe konprimituetako autobus geltokiak | 2003 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Alots | Hegoak ebaki banizkion zeruari, ez zen urdina izango | 2003 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Alots | Gaur, berandu sartu zait beltza hartzeko gogoa | 2004 | Prosa |
| Arregi Izagirre | Alots | Gasolinategirik baldin bada | 2004 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Alots | Tximeleta zuriak kutxa gardenetan asfixiatzen dira | 2005 | Prosa |
| Arregi Izagirre | Odei | Itsasoaren besoetan | 1999 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Odei | Amets gaiztoetatik ihesi | 1999 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Odei | Sentimentuetan galdurik | 2000 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Odei | Aingeruen negarra | 2000 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Odei | Argi amatatuetan itzal bat | 2001 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Odei | Bizitzaren drogak | 2001 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Odei | Sagar bihotzak sagar begietan | 2002 | Poesia |
| Arregi Lopez | Ane | Zuk uste ametsak bete daitezkeela? | 2002 | Prosa |
| Arrese Iturbe | Olaia | Maitemintzearen gaztigua | 1993 | Poesia |
| Arriolabengoa Bengoa | Nagore | Hesiak gainditzen | 2001 | Poesia |
| Arrizabalaga Linaza | Mirari | Zereko zera zertzeko | 1986 | Poesia |
| Arruabarrena Larrarte | Mikel | Gorritik morera | 2012 | Poesia |

| ABIZENAK | IZENA | IZENBURUA | URTEA | ARLOA |
|---|---|---|---|---|
| Arruebarrena Lizarralde | Miren Gurutze | Iluntasuna | 1994 | Poesia |
| Arruti Arruti | Iñaki | Amaierarik gabeko gutuna | 2001 | Prosa |
| Arruti Arruti | Iñaki | Balbea errekak bere bidea darrai | 2001 | Prosa |
| Arruti Errazkin | Idoia | Ametsen Bakardadean | 1998 | Prosa |
| Arruza Elgezabal | Amaia | Naturaren legea | 1988 | Prosa |
| Artetxe Arrien | Ainara | Isilpean bego Anttonen itxura | 1988 | Prosa |
| Artetxe Maiztegi | Maialen | Etorkizun beltzaren islada | 2007 | Poesia |
| Artetxe Maiztegi | Maialen | Itsasoaren magalean | 2008 | Poesia |
| Artetxe Maiztegi | Maialen | Itzal ilunaren beldur | 2009 | Poesia |
| Artetxe Maiztegi | Maialen | Ispiluaren aurrean | 2010 | Poesia |
| Artola Iriondo | Mikel | Nagusia eta hirurok | 1992 | Prosa |
| Artola San Miguel | Asier | Infernuaren mugetatik | 2005 | Prosa |
| Artola San Miguel | Asier | Amorioen bazca | 2006 | Prosa |
| Artolazabal Amilleta | Amaia | Beltza ez delako hain beltz eta zuria ilunago | 1996 | Poesia |
| Artolazabal Amilleta | Amaia | Iluntasunean lorea zimeltzen den lez | 1997 | Poesia |
| Artolazabal Amilleta | Amaia | Denborak ez du astirik | 1997 | Poesia |
| Asurabarrena Bidegain | Eñaut | 12 puntu | 2007 | Prosa |
